

ASTIGARRAGA 2015

34. aldizkaria, 2015eko uztailaren 11



Ongi etorri!

GUZTIOK GARA ASTIGARRAGA

AURKIBIDEA

HISTORIA



Goiatz Erribera eta txanela istripua	22
--------------------------------------	----

BIOGRAFIK



Concepción Echeverría y Miranda	8
Florentino Goikoetxea eta Cométe Sarea	46

HERRIKOIAK



Herritar berriei galdezka	3
Jose Antonio Olano, nuestro misionero en África	6
Miren Santa Kruz Umakonekoa	18
Udalbatza berria herritarren begi bistan	14
Andoni Arzallus, Ergobiko erresiñula	30
Eneko Elizmendiari elkarrizketa	40
Herri bizitzaz	48

ELKARTEAK




Astiarrako Gazteria eta taberna zuloa	16
San Isidro egun handiaren kronika	24
Matazak: madejas contra la violencia	42
Sagardoaren kultura sustatzeko elkarlanean	50

NATURA



Gure basoen historia laburbilduz	12
Baserritarren txosten sozioekonomikoa	36

KULTURA



Ikas laguna proiektua	15
Bi dantza zahar sagardo berriarekin	20
JAIK 2015	25
Euskaldunen eta katalanen arteko trukeak 25 urte	29
Eliza sutan	33
Euskal kultura	34



Argitaratzailea: **ASTIGAR ELKARTEA**

Aldizkariaren koordinatze eta erredakzio lantaldea

ANTTON Arka, KIZKITZA Galartza, ROXARITO Zabalegi eta MIEL JOXE Astarbe

Kolaboratzaileak

Isabel Almandoz, Ramon Santxez, Lourdes Odriozola, Andoni Arzallus, Lorena Uriarte, Urkiri Salaberria, Gaizka Irigoien, Juanxo Zuaznabar, Arantxa Arzamendi, Urtzi Leonet, Garbiñe San Miguel, Xabier Urdangarin, Josu Tellabide eta Asier Agirresarobe

Maketazio lanak:

Arantxa Zulaika eta Antton Arka

Babesle eta Laguntzaileak

KUTXABANK eta ASTIGARRAGAKO UDALA

Lege-gordailua: SS-0058/04

Inprimaketa: Antza komunikazio grafikoa

Azaleko argazkia: Herritarrak kalean, Antton Arka

HERRITAR BERRIEI GALDEZKA

Azkeneko urteotan, jatorri askotako herritarrak iritsi dira Astigarragara. Oso garrantzitsua da Astigarragako herritarrok aniztasunaren garrantziaz eta aberastasunaz kontzientziazten hastea eta sentsibilizatzea.

Jatorria edozein delarik ere, Astigarragako biztanleok elkarren berri izatea eta elkar ezagutzea oso aberatsa da.

Astigarragan 2014 urtean 416 herritarrek eman zuten alta. % 73,3 Euskal Herriko udalerriren batean jaiotakoa zen. Euskal Herritik kanpo jaiotako astigarragatar berriei dagokienez, jatorri nagusia Europako estatu-nazio ezberdinetan jaiotakoena zen. Hain zuzen 72 herritar izan ziren eta alta emandakoen % 17,3 osatu zuten. Ondoren datoz Amerika (24 astigarragatar berri %5,8), Afrika (11, %2,6) eta Asia(5% 1,2).

Ioah Petre Mihai Sabaila

Romania (Pitesti),
5 urte Astigarragan.

1) Nolako herria ikusten duzu astigarraga?

Cuando abro la ventana escucho los pájaros y es maravilloso. No se escuchan coches, hay tranquilidad. La vida es tranquila.



2) Zer ematen duzu faltan hemen zaudenetik?

La familia, sobre todo a mi madre. Pequeños conciertos y tertulias, reunirnos entre las personas. La literatura tiene que estar más presente en nuestras vidas. Aquí tengo casi todo lo que necesito, me falta un trabajo y poder cotizar.

3) Nola sentitzen zara gure herrian?

Me siento como en casa y con la gente del pueblo en general bien. Al principio si me sentí mal. Hay personas que piensan que todos los rumanos roban y esto no es así y duele. Si la persona que tienes al lado no da un paso para conocerte lo doy yo. Nos tenemos que dar oportunidad... se aprende del día a día y de los demás.

Javi Ortiz



Nojakoa naiz (Kantabria),
10 urte Astigarragan

1) Nolako herria ikusten duzu astigarraga?

Goxoa eta txikia.

2) Ze ematen duzu faltan hemen zaudenetik?

Gauza kulturalak, kultur etxe berria.

3) Nola sentitzen zara gure herrian?

Oso pozik

Elkarrizketa euskaraz eginga.

Luis Gonzalo Quintero Ospina



Colombia (Cali),
5 años en Astigarraga.

1) Nolako herria ikusten duzu astigarraga?

Fantástico. Al comienzo me costo por la gente. Al principio lo miraban raro a uno y observaba que me criticaban. Mis hijos llevaban más tiempo y me decían

que tranquilo, si te saludan bien, sino a lo tuyo, eso me decían. Alguna gente de aquí, al extranjero le cuesta admitirlo. Ahora la gente me conoce, me saluda, voy teniendo amigos. Hasta el desconocido me saluda, eso me alegra. Ahora estoy mejor, con mejor acogida.

2) Zer ematen duzu faltan hemen zaudenetik?

Al principio el calor. Yo vengo de un clima tropical. Aquí se vive tranquilo, en mi país en algunos sitios es complicado por terrorismo y la delincuencia. Allí es más fácil comenzar algún negocio, no hay tantas complicaciones, aquí es muy complicado. Con un poco de plata puedes hacer negocios en la calle. Si tienes un sitio, un local, puedes trabajar. Aquí cuesta mucho arrancar.

3) Nola sentitzen zara gure herrian?

Bien, muy bien. Contento, feliz. Me estoy adaptando al frío. Los fines de semana el ambiente de los bares, la música, me gusta. Yo observo cómo es la gente, las costumbres, la manera de vivir, el funcionamiento de las cosas, la atención de las personas....

Grisella Morales Padrón



Cuba (La Habana),
4 años en Astigarraga.

1) Nolako herria ikusten duzu astigarraga?

Primero viví en Hernani, más grande que Astigarraga. Astigarraga es un lugar muy tranquilo. De venir de una ciudad grande, luego Hernani y luego Astigarraga,

más tranquilo y pequeño. No estaba acostumbrada a la vida de pueblo. En estos cuatro años ha mejorado la calidad de vida. Hay flexibilidad de horarios. Es un pueblo que mantiene característica hogareña.

2) Zer ematen duzu faltan hemen zaudenetik?

Extraño sobre todo la familia de allí, aunque aquí he formado mi otra familia. La climatología es muy diferente. Es adaptarse viniendo de un país tropical, hay que mutarse. El clima condiciona la manera de ser de las personas. Es la influencia de la naturaleza. La luz es diferente.

3) Nola sentitzen zara gure herrian?

En Astigarraga me siento bien, en Euskal Herria, en general. Lo bueno que tiene Astigarraga es que es un pueblo pero la ciudad está muy cerca. Hay hospitalidad y es familiar. Ideal para tener hijos, juegan libres en la plaza, la crianza es bonita, están con la gente de la calle. Saludas a la gente en la calle. Mantienes una familiaridad. Astigarraga está muy bien ubicada y comunicada. La gente en general es abierta, cordial y acogedora.

Antonio Antunes Fernandes



Portugal
(Cabeceiras de Basto),
18 años en Astigarraga.

1) Nolako herria ikusten duzu astigarraga?

Primeramente de Portugal llegué a Legazpia, aquí estuve unas semanas. Luego vine a Astigarraga, a Santiagomendi, fue una buena impresión con unas vistas pre-

ciosas. Tuvimos buena relación con la familia Otaño, que tenían un bar en Santiagomendi. De Portugal vinimos tres trabajadores y al comienzo el idioma fue una barrera, con el tiempo lo fuimos aprendiendo. Astigarraga ha cambiado mucho, antes pertenecía a Donostia.

2) Zer ematen duzu faltan hemen zaudenetik?

A mi madre y los hermanos y familia que viven en Portugal. Aquí estoy muy a gusto. He creado una familia, mi mujer es de Donostia y tengo 5 hijos-as de los que estoy muy orgulloso. Es una gran familia. La gastronomía de Euskadi es muy buena. En Portugal tenemos un cabrito

Sandra Liliana Cuervo Sánchez



Colombia (Bogotá),
5 años en Astigarraga.

1) Nolako herria ikusten duzu astigarraga?

Estamos en un espacio bastante rural. La presencia de la sidra es importante en el pueblo. Sin la manzana y la sidra faltaría algo. Lo rural se nota en el día a

día. No hay caseros pero se mantiene como una herencia. En las personas jóvenes o mayores se nota. El pueblo es acogedor, bien organizado. Aunque hay casas y alguna zona nueva que son muy grandes. La iglesia en el centro está diseñado con gusto, es armonioso. Pienso que políticamente no está muy dividido. El sentimiento euskaldun está presente. La gente es bastante sociable, hay lazos vecinales. Sobre todo se vive la relación alrededor de los bares.

2) Zer ematen duzu faltan hemen zaudenetik?

Más es un contraste que echar de menos. Viniendo de una capital la oferta en el comercio es poca. Hay pocas cosas de todo, poco para elegir. Lo echo en falta pero a la vez me gusta. Todo está como muy controlado, horarios, pocas cosas diferentes ocurren, lo inesperado o imprevisto no existe. De la gente extraño la tranquilidad a la hora de hablar. De donde yo soy la gente se abre más fácilmente, te cuentan muchas cosas de su vida aunque no te conozcas. Aquí esto cuesta mucho. La apertura de las personas no es tan natural.

3) Nola sentitzen zara gure herrian?

Ahora comienzo a conocer a más personas y estoy más integrada en las actividades del pueblo y con algunas personas. Mikel, el cura, ha sido un buen enlace. El ambiente de los bares también ayuda, con las personas que regentan los bares me hace sentir que pertenezco a Astigarraga. Aunque vivo aquí, siempre soy extranjera, me siento feliz de estar en el pueblo. Francamente, Astigarraga tiene cosas que me gustan, los montes... Me gustan las personas que tienen inquietudes sociales y proyectos de integración social. Es un pueblo que no termina de abrirse a la diversidad: Bizilagunak es un proyecto que trabaja y ayuda a la cohesión entre culturas y personas y cuesta ponerlo en marcha.

muy bueno, es muy típico, en todos los sitios lo tienes y el bacalao hecho de 100 maneras diferentes es buenísimo.

3) Nola sentitzen zara gure herrian?

La gente de Astigarraga es muy acogedora, seria y amable. Esto es lo que pienso. Hace unos años cuando vinimos mi mujer yo y 2 hijos-as de Lasarte nos costó adaptarnos sobre todo a mis hijos-as. Hoy es el día que no cambiamos Astigarraga.

Anartz Bilbao Loiola



Markina-Ximen,
6 hilabete Astigarragan.

1) Nolako herria ikusten duzu astigarraga?

Oraingo sentsaziñuak, aterrizatu gabe. Ni haurra-gazte nintzela herri txiki eta bildu batean hazi nintzen. Nere semearen-tzat giro honetako antzeko zerbait nahi nuen, Markina lez. Gero 20 urtez Bilbon bizitzen hiri batean, gustura ere. Astigarragak ona du herri txikia izateaz gain, Donostia gertu duela. Bikote donostiarra hona etortzeko arrazoi printzipala. Donostiako ingurua aztertuz Astigarraga aukera bat zen, euskalduna, natur giroan kokatua.

2) Zer ematen duzu faltan hemen zaudenetik?

Bilbo faltan. Jarduera kulturaletan Bilbon aukera handia. Astigarragan eta Donostian ere badira, noski. Hemen ingurura mugitu behar zara ikuskizun eta ekitaldietara. Bilbon gu mugitzen ginen zirkuituan oso giro euskalduna genuen. Astigarraga eta Hernanirekin sorpresa. Herri hauek euskaldunagoak zirela uste genuen. Administrazio kudeaketan, berriz, hemen euskaraz aritu zaitezke. Bilbo, berriz, eremu horretan erdaldunagoa da. Kafe Antzokia faltan botatzen dut.

3) Nola sentitzen zara gure herrian?

Ni oso hiri zalea naiz. Inguru berriak eta ekimen ezberdinak deskubritzen. Orain famili eremuan murgilduta. Haurra herriko eskolan eta inguruan oso gustura. Herriko jendeak ni ezagutzen eta nik herriko jendea ezagutzen. Herri txikia izan arren, dinamika asko dago inguruan.

Cristina Correa Cruz



Mexikokoa naiz, herritxo batean jaio nintzen. Nire herriak Mexicaltongo izena du. Astigarragan 3 urte. Euskaltegian 2 urte.

1) Nolako herria ikusten duzu astigarraga?

Antolatua eta alaia iruditzen zait.

3) Nola sentitzen zara gure herrian?

Kaleko ekitaldiak falta zaizkio.

3) Nola sentitzen zara gure herrian?

Parte hartzen dut.

Elkarrizketa euskaraz eginga.

Nour Houdaa Hamza y Nassira Achouri



Marrocco (Tanger),
5 años en Astigarraga.

1) Nolako herria ikusten duzu astigarraga?

Lo vemos bien. Es un pueblo muy tranquilo, nos gusta. La gente nos va conociendo y tenemos buen trato. Hay muchas fiestas y nos gusta.

2) Zer ematen duzu faltan hemen zaudenetik?

Pocas cosas. El calor, el sol, aquí hay en algunos sitios mucha humedad en las casas pero nos queremos quedar en Astigarraga. En Marruecos no hay comida rápida como aquí. Allí se cocina mucho en casa, nosotros aquí lo hacemos así al estilo nuestro. El pan es diferente y lo hacemos en casa. La familia la tenemos aquí, estamos juntos y eso es muy importante. Antes nuestros maridos vinieron a trabajar a Ergobia hace 11 años y la familia estaba dividida, ahora todos juntos.

3) Nola sentitzen zara gure herrian?

Bien, pero al no hablar bien el euskara o castellano no nos podemos relacionar y comunicarnos como quisiéramos. Nos gustaría poder estudiar en Astigarraga. En euskera hemos aprendido algunas palabras y queremos aprender para poder entender los deberes de la escuela y poder ayudar a nuestras hijas e hijos. Poder entender la información que llega de la ikastola. Tanto en euskera como en castellano. Aquí estamos a gusto, nuestros maridos tienen trabajo. Los hijos pequeños han nacido aquí y queremos que se eduquen aquí. Cuando sean mayores ellos decidirán dónde quieren vivir. En la ikastola estamos muy contentas, las niñas, el niño y nosotras. Nos gusta cómo es.

Elkarrizketa bi ama eta Maryan 10 urteko alaba batekin eginga. Galdera batzuk erdaraz erantzun dituzte, gehiena nik euskaraz galdetu eta alabak itzulita arabierara eta gero alabak niri euskarara itzulita erantzunak. Etengabe erdara eta euskara ikasteko beharraz aritu dira. Herrian baten bat prest hauei laguntzeko?

//MAITE OLAZIREGI

José Antonio Olano



“Nuestro misionero en África”

Cuando escribo estas líneas, lo hago con cariño y nostalgia. Quiero dar a conocer la historia de José Antonio Olano Zapiain. Nacido en Astigarraga en el año 1932, en el caserío Lizardi. Sus padres Francisco y Luisa, ejemplares padres que dieron a su familia una educación cristiana y laboriosa. Hoy día, a sus ochenta y tres años, reside en la Casa Provincial de los Padres Blancos Misioneros de África, en Madrid, recibiendo un merecido descanso, después de casi cuarenta años de trabajo en África.

Como el Espíritu sopla donde quiere y te lleva donde no esperas, en el caso de José Antonio le empujó a una tierra muy lejos de su Astigarraga natal, que llegó a ser su tierra prometida.

Abandonó las ricas tierras del caserío para emprender una gran aventura a la que se entregó en cuerpo y alma compartiendo su vida con aquellos hermanos negros.

Gran creyente, sentimental, trabajador, apasionado y políglota, porque además del euskera, hablaba

francés, suahili y castellano. Su vocación misionera le llevó primero a Bruselas, a la Residencia de los Padres Blancos Misioneros de África. Después de una ardua preparación entre Francia y Túnez, llegó el día de su juramento misionero en 1963. Un año más tarde, el culmen de su vida, la ordenación sacerdotal.

Ya estaba preparado nuestro José Antonio para abandonar los cómodos campos europeos y marchar a un territorio salvaje y tremendamente empobrecido.

Fue destinado a la República Democrática del Congo, antiguo Zaire, donde permaneció, sin apenas interrupción, desde 1965 hasta 2009. Trabajó en siete departamentos, cada uno con su idiosincrasia y su problemática particular, lo que supuso realizar grandes esfuerzos para adaptarse al medio y a las personas, máxime cuando tuvo que sufrir la enfermedad del paludismo, que se presentaba de forma recurrente e inesperada, y que fue minando su salud. Pese a las dificultades, trabajó en todos los frentes, en la enseñanza, como director espiritual de una comunidad de religiosas. Ejerció como padre y maestro, como granjero, carpintero, e ingeniero. Desempeñó los más variados oficios. Todo ello para ayudar a aquellos hombres y mujeres a mejorar su vida. Nada se resistía a su voluntad. Creo que José Antonio recibió de aquellas gentes multiplicado por ciento el cariño y afecto que él les había dedicado.

- Ejerció como padre y maestro, como granjero, carpintero, e ingeniero. Desempeñó los más variados oficios.

Concluyo esta pequeña semblanza que sin duda hubiera merecido una mejor literatura, contando el papel que el pueblo de Astigarraga desempeñó en la labor evangelizadora y social de José Antonio. Astigarraga tomó parte muy activa con la ayuda material que durante muchos años proporcionó a José Antonio y a través suyo a muchos africanos que vieron mejorada sus expectativas de vida. Cada vez que José Antonio volvía de la misión, llevaba a cabo una tremenda labor de concienciación entre nosotros sobre las urgentes necesidades de aquellos hombres y mujeres. Su poder de convicción era enorme y la generosidad del pueblo también.



Entre todos sus amigos del pueblo, tengo que distinguir a Andoni Arzallus, al que no sólo Dios le dotó de una hermosa voz, sino de un gran corazón. No es fácil enumerar la gran cantidad de mobiliario, sillas plegables, mesas, miles de clavos y tornillos, que puso a disposición de su amigo. Y esto a lo largo de muchos años. No me resisto a contar una anécdota que le sucedió al dadivoso Andoni. Había enviado a África dos taladros por petición de José Antonio. Cuando éste los tuvo en sus manos, le entró una risa mayúscula al darse cuenta que eran unos taladros eléctricos. ¡Talandros eléctricos en unos parajes en los que no había corriente eléctrica! Las risas llegaron hasta Astigarraga. Afortunadamente, todo se arregló.

Con pesar termino esta humilde semblanza pensando que para algunos astigarratarra será conocida y agradable. Saludos a todos mis amigos y amigas del pueblo.

Isabelita Almandoz

Nota:

Por llevar el hábito totalmente blanco se les llamaba padres blancos

Concepción Echeverría Miranda:

9. “Astigartar Kuttun Txit Gorena”

Maiatzaren 19an, Astigarragako udalbatzak aho batez onartu zuen Concepción Echeverría Miranda alaba kuttun izendatzea. Kasualitatez, “Doña Kontxa” 160 urte lehenago, data berberean Astigarragako Borda baserrian jaio zen. Astigarragako 9. “astigartar kuttun txit gorena” da, baina lehenengo emakumea semeen artean.



Hurrengo lerroetan ikusiko duzuen bezala, meritu handiko emakumea izan zen. Bere garairako, oso aurreratua eta “moderno” izan zen, hezkuntza bultzatuz eta Astigarragako bizilagunentzako gizarte-proiektu bat gauzatuz, erakunde publikoek horrelako zerbitzuak oraindik ondo betetzen ez zituztenean.

Gainera, gosea eta langabezia izan zen garaian, emakume bihoztun eta ausarta izan zen neska-mutil behar-suei hezkuntza, janaria, jantziak eta zainketa emanez.

“DOÑA KONTXAREN” DATU BIOGRAFIKOAK

María Concepción Celestina Echeverría Miranda, “Doña Kontxa” bezala ezagutzen den andrea, 1855. urteko maiatzaren 19an jaio zen, Astigarragan¹.

Berez, bere familia ez zen Astigarragakoa; baina bere aita, Jose Manuel Echeverría Setien, oso gaztetatik Urnietatik Astigarragara etorri zela jakin dugu. 1852an, Maria Manuela Miranda Arrieta hernaniarrarekin ezkondu zen eta senar-emazteak Borda baserrian bizi-tzen jarri ziren maizter bezala². Bi alaba izan zituzten: María Martina eta María Concepción Celestina.

Dirudienez, familiak estutasun ekonomikoak zituen eta horregatik, “Doña Kontxak” oso gaztetatik atera behar izan zuen kanpora neskame bezala lan egitera. Berarentzako, erronka handia izan zen, baserritik mundu ezezagun batera irakurtzen eta idazten jakin gabe atera zelako. Hau da, eskolarik gabe eta erdaldu-nak zeuden leku batera joan behar izan zuelako.

Familia dirudun baten etxean lanean hasi zen eta, dirudienez, han bere senarra ezagutu zuen, Antonio Claras jauna.

Ez dakigu noiz eta non ezkondu zen Antonio Clara-sekin, ezta bizitzen non hasi ziren edo irakurtzen eta idazten noiz ikasi zuen ere. Baina zalantzarik gabe, bere ezkontzarekin “señora” dotore eta dirudun bihurtu zen.

1904an alargun eta Madrilgo bizilagun bezala agertzen zaigu dokumentuetan³. Garai horretan, lehen pausuak ematen hasi zen bere “Asilo-escuela de Huérfanos de Jesús Nazareno y Cristo Rey” fundazioa gauzatzeko

eta 1930ean abian jarri zuen. Hau da, gaur egungo Kultur Etxea dena eraikitzea agindu zuen berak. Gainera, Astigarragara bizitzera itzuli zen.

1940ko ekainaren 15ean hil zen, 85 urterekin, buruko garun-odoljarioaren ondorioz, Astigarragako “egoitza-eskolan”⁴.

“DOÑA KONTXAREN” ERAGINA ASTIGARRAGAKO HERRIAN

“Doña Kontxa”, bere garairako emakume aurreratua izan zela esan dezakegu.

XIX. mende bukaeran hasitako garapen ekonomikoak gizartearen desberdintasun handiak ekarri zituen, burgesiaren eta baserritarren eta langile-klasearen artean. Hori dela eta, gure protagonista gizarte-kontzientzia handikoa eta hezkuntzaren garrantziaz jabetutako emakumea izan zen, bera pobrezian eta aberastasunean bizi izan zelako. Gainera, pobreziatik ateratzeko hezkuntza ezinbestekoa zela jakin zuen. Garai hartan, Astigarragan bizilagunen % 76 analfabetoak ziren eta Donostian % 36,44⁵.

Alargundu eta seme-alabarik gabe gelditu ondoren, “Doña Kontxa” emakume dirudun bihurtu zen. Hala ere, inoiz ez zituen bere erroak eta jatorria ahaztu. Baserritarren seme-alabei etorkizun hobea emateko, Astigarragara itzultzea pentsatu zuen. Bere asmoa gauzatzeko, “egoitza-eskola” bat eraikitzea erabaki zuen.

Prozesuak, gutxi-gorabehera, hogeita hamar urte iraun zituen eta ia den-dena Madriletik kudeatu zuen ahal-dun batez baliatuz. Adibidez, 1904an Juan Pío Golderaz Arregik bere ahal-dun izendatu zuen eta notario-ahalorde bat eman zion:

“[...] para que obrando y en representación de la Señora otorgante, efectue la compra-venta de cualquier terreno situado en jurisdicción de Astigarraga, pro el precio de 2.000 pesetas y bajo las condiciones que pacte libremente, satisfaga dicho precio, tome posesión de lo que adquiera, haga constar en documentos públicos y privados los actos y contratos que efectué y realice con los motivos y sus incidencias todo lo demás que estime conveniente [...]”⁶.

1/ DONOSTIAKO ELIZBARRUTIKO ARTXIBO HISTORIKOA: Astigarragako bataioko jatorrizko erregistroa, M200-05.

2/ DONOSTIAKO ELIZBARRUTIKO ARTXIBO HISTORIKOA: Hernaniko ezkontzako jatorrizko erregistroak, M512-03.

3/ GIPUZKOAKO PROTOKOLOEN ARTXIBO HISTORIKOA: 3/4077, 6715. orrialdea.

4/ ASTIGARRAGAKO ANDRA MARI ELIZA: Heriotzako jatorrizko erregistroa. Mikel Goenagak eskuratutako dokumentua.

5/ AGUIRRE SORONDO, Antxon: Astigarraga, historiaren historiak. Astigarraga: Astigarragako Udala, 2007.94. orrialdea.

6/ GIPUZKOAKO PROTOKOLOEN ARTXIBO HISTORIKOA: 3/4077, 6723. orrialdea.

Formula honetaz baliatuz, “Doña Kontxak” 5.732 m²–ko lur sailak erosi zituen “egoitza-eskola” eraikitze-ko⁷. Hurrengo urratsa, 375 m²-ko azalerako eta hiru solairuko etxe bat eraikitzea izan zen⁸; eta azkenik, Fundazio bat sortu zuen berak hasitako gizarte-ekin-
tzari denboran zehar jarraipena emateko.

“Doña Kontxak” ume behartsuekin, eta bereziki Astigarragako umezurtzekin, sentsibilitate handiko emakumea izan zen eta beraientzat, preseski, eraiki zuen “egoitza-eskola”. Nahi hori “Asilo-escuela de Huérfanos de Jesús Nazareno y Cristo Rey” fundazioaren notario funtsean zehatz-mehatz agertzen da, honakoa esanez:

“[...] Que Doña Concepción Echeverría construyó el edificio indicado con el fin que sirviera de asilo y escuela de niños pobres principalmente huérfanos de Astigarraga, a quienes de esta suerte deseaba darles instrucción y alimentación y cuidado material [...]”⁹.

“Egoitza-eskolak” hiru eginkizun nagusi zituen: ume behartsuei heziketa, elikadura eta zainketa materiala ematea, hain zuzen ere. Hau dela eta, bere jabego guztiak eta garaiko 440.000 pezeta (diru kopuru horrekin hamaika baserri eros zitezkeen orduan) sortutako Fundazioari utzi zizkion beste batzuen artean, baldintza hauetan:

1. Irakaskuntza onuragarria eta pribatua izateko.
2. Astigarragako neska-mutil behartsuei hezkuntza, janaria, jantziak eta zainketa dohainik emateko. Horrez gain, haurren faltan, adinezko behartsuei janaria eman ahal izango zitzaien, baina aterperik gabe.
3. Ume txiroei, bere bizitzan aurrera egin ahal izateko, heziketa osoa, egokia eta sinismen katolikoan ematea.
4. Fundazioa Patronatu baten bitartez kudeatuko zen eta bere kide guztiak Astigarragako bizilagunak izan beharko zuten.
5. Fundazioko errentak “egoitza-eskola” zaintzeko izango ziren eta zentroaren ardura “Agustinas Misioneras de Ultramar” kongregazioaren eskutan uzten zen.

6. Fundazioak bi pezeta moja bakoitzari eta 1,50 umei ordaindu behar zizkien egunean, haurren zainketa, garbiketa, uniformeetako janzkera eta elikadura gauzatzeko.

7. Umeen elikadurari dagokionez, “Doña Kontxak”, goizean kafesnea; eguerdian zopa, eltzekoa eta haragia; arratsaldean, askaria; eta gauean, eltzekari plater bat, haragia edo arraina, eta beti nahiko ogirekin eman behar zitzaizkiela idatzita utzi zuen.

8. Sei eta hamahiru urte bitarteko haurrak onartu ahal izango ziren; batzuk barneko ikasle moduan, eta beste batzuek hezkuntza eta eguerdiko bazkaria soilik jasoko zuten. Baina, haur guztiek behartsuak izan behar zuten¹⁰.

Beste aldetik, “Doña Kontxak” garai hartako egoera politikoa kontuan izan zuela azpimarratu behar da. Gainera, ziur jokatu zuen.

1930. urtean Primo de Riveraren diktadura indarrean zegoen eta “Doña Kontxak” bere esku zituen neurri guztiak abian jarri zituen bere ondasunek Espainiako estatuaren esku ez bukatzeko. Helburu honekin, “Asilo-escuela de Huérfanos de Jesús Nazareno y Cristo Rey” fundazioaren notario funtsak, bere 13. puntuan hau adierazten zuen:

“[...] Queda prohibida terminantemente toda intervención del Estado o de otro Centro, en el gobierno, dirección y administración del Asilo-escuela. Si el Estado o algún Centro tratase de incautarse del Asilo-escuela, de inmiscuirse en su funcionamiento, salvo en lo relativo a la observancia de las reglas de policía e higiene todos los bienes de la fundación pasarán del Ayuntamiento de Astigarraga y de la Diputación de Guipúzcoa para que le den el destino que le sea permitido con la voluntad de la otorgante”¹¹.

EZAGUTU ZUTENEN OROITZAPENAK

Ezagutu zuten guztiek, adin txikiko izan eta berarekin harremanik ez izan arren, “Doña Kontxaren” oroitzapen oso ona dute. Denek, “Señora” eta karisma handiko emakume bezala definitu dute.

7/ “Asilo-escuela de Huérfanos de Jesús Nazareno y Cristo Rey” fundazioaren notario funtsa (Donostia, 1930-07-26).

8/ Bere jabego funtsa 1930eko apirilaren 2an sinatu zen Donostiako Luis Barrueta notaritzan.

9/ “Asilo-escuela de Huérfanos de Jesús Nazareno y Cristo Rey” fundazioaren notario funtsa.

10/ “Asilo-escuela de Huérfanos de Jesús Nazareno y Cristo Rey” fundazioaren notario funtsa (Donostia, 1930-07-26).

11/ “Asilo-escuela de Huérfanos de Jesús Nazareno y Cristo Rey” fundazioaren notario funtsa.



“Egoitza-eskolako” lehenengo solairuan bizi zen eta etxearen atzeko sarrera erabiltzen zuen sartzeko eta ateratzeko; umeez eta mojek, berriz, etxe aurrean zegoena erabiltzen zuten. Hau da, umeez ez zen nahasten, baina zentroen kontrol guztia bere esku zeukan. Hori dela eta, istilu edo arazoren bat gertatzen zenean, beti han zegoela esan digute elkarriketatuek, konpontzeko prest. Haurren elikadurari garrantzi handia ematen ziola ere esan digute.

Ia egun osoa, eskolaren inguruan eraikitako oilategian bakar-bakarrik egoten zen, oiloak zaintzen eta ba-

tzuetan beraiekin hitz egiten ikusi zutela esan digute. Astigarragatik gutxitan ateratzen zen; gehienetan, Donostiara mandatuak egitera; eta beti, aterki batekin eta eskolako ume baten laguntzaz. Batzuetan, bere ahizparen bisitak jasotzen zituen.

Bere ile zuria moño batean bilduta eramaten zuela eta beltzez jantzita (dotore baina “antzinako moduan”) ibiltzen zela adierazi digute, eta argala eta garaiera erdiko emakumea zela deskribatu.

//LOURDES ODRIOZOLA OYARBIDE

INFORMAZIO ITURRIAK

- Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoa.
- Donostiako Elizbarrutiko Artxibo Historikoa.
- “Asilo-escuela de Huérfanos de Jesús Nazareno y Cristo Rey” fundazioaren notario funtsa.
- Astigarragako Andra Mari Elizaren heriotzako jatorrizko erregistroa.
- Marcelina Goikoetxea Labaka, Manoli Ubarretxena, Pila Zapiain, Mikel Goenaga, Itziar Arozena eta Pilartxo Arizabaleri egindako elkarriketak.
- Antxon Aguirre Sorondoren Astigarraga, historiaren historiak liburua.
- Isabel Almandozen “D^a Concepción Echeverría Miranda: Una benefactora poca conocida y reconocida” artikulua. Astigarraga 2010 aldizkaria, 29. zenbakia.

GURE BASOEN

HISTORIA LABURBILDUZ

Yoana García Mendizabal

Aranzadi Zientzia Elkartea

Basoak lurzorua eta baldintza klimatikoen menpe daude. Hau dela eta, aldaketa klimatikoak dira basoen banaketaren historia idazten dutenak. Hau jakinik, hurrengo galdera datorkigu burura, *noiz sortu ziren egungo baso-paisaiaren oinarriak?* Gaurko basoen banaketaren oinarriak azkeneko glaziazioaren ondoren hasi ziren sortzen, orain dela 6.000 urte inguru klima egonkortzen hasi zenean, hain zuzen ere. Orduan sortu ziren gutxi gorabehera oraingo tenperatura tarteak, erregimen hidrikoa eta kantauriar kostaldeko baldintza atmosferikoak. Baldintza hauek izan ziren hain justu ere basoko espezie klimatikoak, laborantza-lurrak, etxeko abereak eta bertan bizi garenon ohiturak baldintzatu zituztenak.

Garai horietako landaredia eta landare espezieak paleobotanikak aztertzen ditu eta hainbat ikerketaren arabera badirudi azken glaziazio honen ondoren *Pinus* generoko espezie batzuk oraindik ugariak ziren arren (aurreko garai hotzaren ondorioz) espezie nagusia *Quercus* generokoa zela (haritzaren genero berdina), honi *Corylus* eta *Ulmus* generoko espezieak jarraitzen ziotelarik (hurritza eta zumarraren generoak, hurrenez hurren). Badirudi *Pinus* generoko espezieak mendigune hotzetara mugatuta geratu zirela garai honetan. Espezie aitzindari hauen ondoren beste genero batzuetako espezieak sartzen hasi ziren: *Alnus* (haltzaren genero berdinekoak), *Fraxinus* (lizarren genero berdinekoak), *Tilia* (ezkiaren genero berdinekoak), *Abies* (izeiaren genero berdinekoak), *Fagus* (pagoaren genero berdinekoak), *Castanea* (gaztainaren genero berdinekoak) eta *Buxus* (ezpelaren genero berdinekoak). Ordurako *Homo sapiens sapiens* espeziea hasia zen zuhaitz hauen egurra erretzen eta bere inguruan aldaketak sortzen.



Ordudanik gaur arte gizakia bere ingurua beharren arabera moldatzen joan da. Horrela, Neolitoko gizakiak egin zituen lehen soilketak basoan nekazaritza garatzen hasteko. Soilketa txikiak izan ziren baina aipatzea merezi dutenak, izan ere, gizakia lehenengoz basoa ustiatzen hasi zenetik gaur arte aldaketa ugari jasan ditu Euskal Herriko baso-paisaiak.

Erdi Aroan oraindik, basoa oparoa zen, inork ez zuen uste desagertuko zenik eta bere aprobetxamendua ez zegoen arautua. Baina garai hartan, burdingintzak, ontzigintzak eta eraikuntzak egurraren kontsumoa igo eta basoaren atzeraldia ekarri zuten. Honek basoekiko interesa zabaldu zuen eta gatazkak hasi ziren. Gatazka hauek basoen erabilera lehenengo aldiz arautzea ekarri zuten. Horrela, XV. mende amaieran eta XVI. mende hasieran basoaren atzerapena gelditzeko baso teknika zehatzak eta lege berriak sortu ziren. Hala ere, basoa mantentzeko neurri hauek ez zuten emaitza nabarmenik lortu eta basoak atzera egiten jarraitu zuen. Hau gutxi balitz, industria jarduerak garatzen ziren heinean basoek okerrera egiten zuten.

XVIII. mende arte basoa udalen diru iturririk nagusia izan zen, baina basoaren produktibitatea murriztu zenean, udalek lur komunalak saldu behar izan zituzten eta XIX. mendetik aurrera baso gehienak esku pribatuetara pasa ziren.

***“basoaren produktibitatea
murriztu zenean, udalek
lur komunalak saldu behar
izan zituzten eta XIX. mendetik
aurrera baso gehienak
esku pribatuetara pasa ziren.”***

Lur horiei etekina ateratzeko asmoz koniferoak, intsignis pinua bereziki, landatu zen. Honek aldaketa handia ekarri zuen ekonomian eta baita paisaian ere. Paisaia monotono bilakatu zen, konifero hauek gure lurraldearen %75 estaltzera iritsi ziren 70eko hamarkadan. Baina 1984-1993 urteen artean egurraren salneurriak krisialdi sakona jasan zuen (beste arrazoi batzuen artean kanpotik ekarritako egurra merkeagoa izateagatik eta paper fabriken krisialdiagatik). Horrela, XXI. mende hasieran koniferoek lurraldearen %59 estaltzen dute eta espezie hostozabalak lurraldearen %25 izatetik %40 izatera pasa dira.

Gauzak horrela, basoak berriz ere eraldatzen ari dira, baina oraingoan ekonomiak, industriak eta ingurugiro ereduak baldintzatuta, hau da, egungo gizartearen beharren arabera aldatzen ari dira eta aldatuko dira. Azkenik esan, XX. mende bukaeran mendien funtzioak dibertsifikatu egin direla. Horrela, gizakiak ematen dion funtzio produktiboa eta soziala izateaz gain, ezinbestean bete behar duten eta bermatu behar dugun beste funtzio bat betetzen dute mendiek, funtzio ekologikoa, hain zuzen ere. ●



2015-18 AGINTALDIA

UDALBATZA BERRIA

HERRITARREN BEGI BISTAN

Herritarrez beteriko udalbatza aretoan osatu zen 2015-18 agintaldirako udalbatza joan zen ekainaren 13rako eginda-ko deialdian. Hasieran, adinekoen mahai osatu zen, ondoren zinegotziek beren kargua hartu zuten, oraingo agintaldian 13 zinegotzi dira 5.001 biztanletik gorako herri bat garelako. Jarraian ekin zioten alkatea izendatzeko prozedurari. Bi alkategaik aurkeztu zuten euren hautagaitza: Andoni Gartzia (EH Bildu) eta Jesus M^a Santosek (EAJ-PNV).

Kezka handia zegoen herrian, zerrenda bozkatuena errespetatzearen inguruan. Baina hori bozketaren ondoren argi gelditu zen: EAJk lortu zuen alkatetza, PSE-EEko ordezkariaren botoari esker. Alkatearen sarrerako hitzen ondoren Andoni Gartzia alkate ohiak eskatu zuen hitza. Beraz, herritarrek aukera izan zuten alkate izendatu berriak nahiz alkate kargua utzi berriak Astigarragaren inguruan duten ikuspegia ezagutzeko.

• Emaizak:

Errolda: 4.204				
Emandako boto kopurua: 2.674		Parte hartzea: % 64	Abstentzioa: 1.530 - % 36	
Alderdia	EH Bildu	EAJ-PNV	PSE-EE	PP
Botoak	1.130	1.113	245	49
Ordezkaritza	% 43	% 42	% 9	% 2
ZINEGOTZIAK	6	6	1	---

• Kargua hartu zuten zinegotziak:

EH Bildu

Andoni Gartzia
Ione Olatziregi
Ander Goikoetxea
Ainara Vázquez
Iñaki Goñi
Tere Bernal

EAJ-PNV

Jesús Mari Santos (Alkatea)
Zorione Etxezarraga
Ander Goikoetxea
Ramón Aranzasti
Olaia Pastoriza
Nerea Zusberro

PSE-EE

Mikel Duran





Astigarragako Herri Eskolako jolastokian adin desberdinetako umeak daude binaka lurrean eserita. Zaharrenak, gazteenari, beretzako propio sortutako ipuina kontatzen dio. Txikiak adi jarraitzen du, nola ez, bera protagonista den istorioa kontatzen ari zaio laguna. Baina nola elkartu dira denak bikoteka?

IKAS LAGUNA proiektua



Ikas laguna: berdinen arteko laguntza modua

Duela zazpi urte berdinen arteko harremana bultzatzeko ekimena jarri genuen martxan Arantzazuko Ama Ikastolan. Euskararen normalkuntza batzordetik sortutako ekimena izan zen. Euskararen erabilera indartzeko, adin desberdinetako ikasleen arteko harremanak bultzatu eta ekintza erakargarriak egitea zen asmo nagusia. Antolaketa lanak egin eta emaitza positiboak ikusita, urtez urte errepikatzen joan da, ebaluazioak eta moldaketak egin ondoren. Gaur egun, ikasle eta irakasleen aldetik, oso balorazio positiboa egiten dugu. Arrazoi honengatik egitasmo honekin jarraitzeko asmoa dugu.

Zergatik egiten dugu proiektu hau?

Hasierako helburua euskararen erabilera bultzatzea bada ere, egitasmo honek beste hainbat ahalbidetzen ditu, hala nola: adin desberdinetako ikasleen arteko elkar ezagutza, elkarlana eta elkarbizitza bultzatzea, ikasle arduratsuak sortzea, harreman orekatuak sustatzea, komunikazio bideak ahalbidetzea...

Nola egiten da?

Adin desberdinetako bi taldeen arteko bikoteak egiten dira, adibidez 4 urtekoak 10 urtekoekin.

Ikasturte hasieran bikoteak egiten ditugu. Beti ere, aurreko ikasturteko bikote berberak mantentzen saiatzen gara harremanak jarraipena izan dezan. Tutoreak

elkartzen dira eta urteko plangintza egiten dute.

Hasierako jarduerak elkar ezagutzeko izaten dira. Bikote ezagunen kasuan, harremanari jarraipena emateko. Hainbat ekintza egiten dira: bikote-lagunen argazki murala, zaharrenak gazteenei eskutitzak idatzi, ipuin pertsonalizatuak egin, jolasak eta abestiak erakutsi...

Harremanetarako jarduera hauetaz gain ikasturtean zehar hainbat ospakizun bideratzen ditugu bikote laguna oinarri hartuta: euskararen eguna, haur liburuen nazioarteko eguna, jolas laguna...

Balorazio positiboa

Adin desberdinetako ikasleen artean sortzen diren harremanak eta berdinen artean sortzen direnak desberdinak dira. Harremanetan edo ikasketetan zailtasunak dituzten ikasleek ezohiko jarrera hartzen dute bikotearekin daudenean; ikasle helduek ikasle gaztearen ardura bereganatzen dute, inongo azalpenik eman behar izan gabe; eskolatik kanpo, ikasle txikiek bikotea ikustean, ezohiko harremana ikusten da; behar bereziak edota ezintasun fisikoren bat duen ikasleak harreman egokitua jasotzen du; ikasle txikiak, bikoteko nagusi izatera pasatzen denean (5 urteren ondoren), oroimen positibo batetik abiatzen da, eta arduratsuen eredua kopiazen saiatzen da; pasilloetan, bikoteak gurutzatzen direnean, agurtu, besarkatu egiten dira...



Esan bezala, ikasle eta irakasleok proiektuaren balorazio ona egiten dugu. Hori dela eta, datozen ikasturteetan ere egitasmo honi jarraipena emateko asmoa dugu. ●

ASTIARRAKO GAZTERIA ETA TABERNA ZULOA

Jakintsuren batek esana da gaztetasuna denborak sendatzen duen gaixotasuna dela. Konturatzerako alde egiten duela diote jada gazte sentitzen ez direnek; gazteak, berriz, beti gazte izango direlako ustean bizi dira, gaztetasunak alde egin diela sentitzen duten arte behintzat. Azken finean, adina gutxienezkoa da, gazte sentitzea omen da gakoa.

Gaztetasuna denborak sendatzen duen gaixotasuna omen da. Eta gazte mugimendua ez ote du ba urteen joanak ezabatuko, gaztetasuna bera bezalaxe? Baietz esango luke edonork, gure herriko gazte mugimenduari begiratuz gero. Izan ere, zer egiten du ba Astigarragako gazteriak, urte guztian zehar taberna zuloak bete eta herriko jaietan mozkortzeaz gain? Ezer gutxi, erantzungo luke. Eta, egia esan, gaur egungo egoerak horixe iradokitzen digu lehen begiratuan. Hala ere, arazoa dirudiena baino askoz ere korapilatsuagoa da, Astigarragako gazte mugimendua-ren gainbeheraren arrazoia ez baita gazte jendearen alferkeria. Edo ez behintzat hori bakarrik.

2012. urtera arte, Astigarragako gazte mugimendua Gazte Asanbladak biltzen zuen guztiz, eta Asanbladak Santio Jaietako txosna gunea antolatzea beste lanik ez zuen ia, azken boladan behintzat. Hortaz, garbi dago Astigarragako gazte mugimendua gainbehera larrian zegoela. Guztiarekin ere, 2012. urtean gure salbazioa iritsi zen, *Gazte Zukgua* prozesu eratzailea jarri baitzen abian. Prozesu eratzaile horrek gure herriak behar zuen bultzada eman zion gazte mugimenduari. Izan ere, ordura arte Gazte Asanbladara sekula hurbildu gabeko gazte ugari elkartu ginen bertan. Askok ez genuen ia elkar ezagutu ere egiten, koa-drila askok ez baitzuten herrian ibiltzeko ohiturarik. Edonola ere, gure arteko desberdintasunak desberdintasun, elkarrekin bildu ginen, eta eztaba-ida ugari izan genituen: politika eta nazioak izan genituen hizpide, eta baita ekonomia eta ideologiak ere, kultura eta hizkuntza, feminismoa eta ekologia... Prozesu eratzaile ezin aberasgarriago horren baitan Astigarragako gazteriak oraindik bizirik zegoela erakutsi zuen, eta ez zela, gaztetasuna bezala, denborarekin desagertu; horren

ordez, gazte belaunaldi berriek lehenagokoen indar sortzaile berbera zutela erakutsi zuten, eta giro ezin biziagoa sortzeaz gain, herriko gazteek elkartuz gero izan dezaketen potentzial kreatiboa zeinen handia den erakutsi zuten. Zinez, Astiarrako Gazteriaren erretratu ezin ederragoa utzi ziguten *Gazte Zukgua*-ko topaketek.

Baina gatozen gaurko egunera: zer gelditzen zaigu gaur egun, 2015ean, duela hiru urteko gazte mugimendutik? Egoera dezente aldatu den arren, garai hartan ehundu genuen gure arteko harreman sareak bere horretan dirau, eta horren adibide da harrezkero Santio Jaietako txosna gunea antolatzen izan dugun gazte andana: sekula ez bezalakoa. Hala ere, onartu behar dugu *Gazte Zukgua* amaitu ahala joan zitzaigula gazte-indar kolektiboa agortzen, eta gaur egungo gazte mugimenduak ez duela 2012ko gorakadan izan genuenarekin batere antzik. Onartzea zail egiten bazaigu ere, Astigarragako gazte mugimendua berriz ere gainbeheran dago. Zergatik, baina? Gure herriko gazte mugimenduak jada erakutsi du baduela potentziala gazteria kritiko, inplikatu eta aktibo bat artikulatzeko. Zer dela eta, bada, gainbehera?

Esaldi bakarrak labur dezake zergatia: emariak iturrian bertan egin zigun gainezka. Potentzial guzti hori *Gazte Zukgua*-ren baitan lehertu zitzaigun, baina, *Zukgua* bera amaitu zenean, ez genuen potentzial hori bildu eta bideratzeko bitartekorik -alegia, leku fisikorik-. Eta hementxe egin dugu behaztopa gure herriaren arazo potolo batekin: Astigarragak ez du gazteek kolektibo gisa haien potentziala bideratzeko gunee edo espaziorik. Duela hiru urteko indar-eztandak erakutsi digu potentziala egon badagoela; aldiz, indar hori bideratzeko gunerik ez.

Gazteen potentziala kudeatzeko gunerik ez izatea berez gabezia larria den arren, Gazte Asanbladan ohartu gara gabezia hori sintoma bat baizik ez dela, gure herriak duen arazo askoz ere orokorrago baten sintoma: herriak berak justu-justu asetzen ditu bere behar kulturalak. Astigarragako jardun kultural ahula gure kultur etxe txi-

kiak mugatzen du, eta, aldi berean, kultur etxeak mugatzen du herriko jardun kulturala. Hortaz, uste dugu Astigarragak ezinbestekoa duela eredu ahitu horri aurre egingo dion erreferente bat, kulturagune alternatibo bat, alegia, kultur etxearen ekintzak osatuko dituen. Gune honek, alabaina, ez luke kultur etxearen jarduna mimetizatu behar; horren orde, kultur eredu alternatiboak jorratu beharko lituzke, parte-hartzaile eta sortzaileak: funtsean, eraikitzaileak. Azken finean, kultura kontsumo hutsari lotzen dion eredu honi aurre egin eta gure gazteriaren sormen-potentziala suspertuko duen gune baten beharra aldarrikatzen dugu. Eta ez aldarrikatu bakarrik, orain arte eginahalak egin baititugu proiektu hau egiazko espazio fisiko batean gorpuzteko. Oraingo, baina, gogor saiatu arren, ez dugu arrakastarik izan; haatik, gure eginahalak ez dira antzuak izan. Izan ere, Gazte Asanbladan 2015eko uda hau go-goetarako baliatzeko asmoa dugu, ez soilik gazteen artean dagoen indarra eta gogoia neurtze-

ko, baizik eta baita, epe ertain eta luzera begira, kulturagune alternatibo honen proiektua behar bezala eraikitzeko ere. Hartara, irailean berriz ere gogo biziz ekingo diogu prozesu eraikitzaile honi.

Hasiera batean hala ez dirudien arren, gurean hertsiki lotuta doaz herriko gazte mugimendua eta kultur jarduna: lehena bigarrenaren isla da. Hortaz, kexu baldin bagara gazteak taberna zutotik ateratzen ez direlako, beharbada geure buruari galdetu beharko genioke zergatik dauden herrian hainbeste taberna eta hain kultur ekintza gutxi.

Jakintsuak esan zuen antzera, gaztetasuna iragankorra da, eta konturatzerako egiten du alde. Gazteriak, baina, bertan dirau. Lozorrotik atera behar du soilik.

//JOANNES JAUREGI
//ASTIARRAKO GAZTE ASANBLADA

ARAITZ ETXAIZ, ASTIGARRAGAKO GAZTEA ALEMANIAN LANEAN

Egungo egoera ez da ona, ez Astigarragan, ez ondoko herrietan. Gazteok kanpora joatea edo lan prekarioetan aritzea dugu etorkizun. Nik kanpora joan behar izan dut eta lan egiten dudana enpresarekin zortea izan dut zeren denetan laguntzen du. Baina, egia esan, hobeto egongo nintzateke han lanean egongo banintz. Gazteoi mila gauza eskatzen dizkigute, masterrak, hizkuntzak, esperientzia... hori lortzeko denbora behar da eta gauza guzti horiek ditugunean konturatzen zara zaharra zarela eta enpresak gazteak nahi dituela! Nire kasuan lehentasuna momentu honetan hizkuntza da, lankideekin eta gainontzekoekin ulertzeko gehienbat. Medikura joatea espektakulo bat izan zen lehenengo aldian eta hori gazte-leraz zerbait bazekiela. Han nengoenean lehentasuna lana zen. Ama eta biok bakarrik bizi ginen eta normala eta logikoa iruditzen zitzaidan etxean ahal nuen moduan laguntzea. Lan egiteak ere

askatasun bat ematen du, baina horrek ez du esan nahi beste interesik ez nuenik: lagunak, familia, egoera politikoa...

Zegoen egoera ikusita ez zitzaidan inporta Gipuzkoan, Euskal Herrian, Espainian edo kanpoan lan egitea, kontua lan egitea baitzen. Aukera hau txiripaz aterazen, elkarrizketa egin nuen eta hemen nago Alemania ekialdean. Erabakia gogorra izan zen, bizitza erabat aldatu zaidalako baiezkota esan nuenetik. Kanpoan bizi diren gainontzekoak bezala, batzuetan herrimina daukat, nire kasuan dantza egitea faltan botatzen dut, lagunekin edo amarekin kafetxo bat hartzea. Baina gaur egungo modernitateekin distantzia txikitzen da. EHn eta Astiarran gertatzen direnez informatua nago! Hemen izan dugun laguntza beste enpresa batzuetan ez da gertatzen eta hori asko eskertzen da. Laguntza gabe uste dut gutxira etxera itzuliko nintzela. Nire lankidearekin ere zortea izan dut. Beti laguntzen dit, hizkuntzarekin izan ditzaketan dukin laguntzen dit, nahiz eta oraindik klaseak jaso. Bere alaba bat bezala tratatzen nau eta horrekin ezin kexatu. Leku guztietan bezala xenofoboak daude, bizi naizen zonan gehiago, baina nik behintzat ez

dut nabaritu eta badakit hemen kanpotarra ni naizela. Hemen aurkitu ditudan gazte euskaldunak Berlinean ezagutu ditut. Denetik dago, ikasleak, musikariak, euskara irakasleak. Berlineko diasporakoek Korrika antolatzen zuten eta han konturatu nintzan zenbat garen. Euskaldun asko gaude mundutik zehar!



//ARAITZ ETXAIZ

“Ni beti izango naiz Miren Umakonekoa”

Miren Santa Kruz 17 urtekin ezkondu zen Astigarragako Umako etxera, udaletxetik elizara bidean orain 4 urte arte zutik egon den etxera. 65 urte egin ditu bertan, 2011n bota zuten arte. Oraindik ere bertatik pasatzera-koan zirrara berezia sentitzen du.



Umakoneko baserria

Zu Hernaniko Epelekoa izanik, nolatan etorri zinen Astigarragara?

13 urtekin etorri nintzen Astigarragako Apeztegi etxera bertako haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Bertan morroi zegoen ondoren senarra izango nuen Umakoneko Antonio.

13 urtekin zer iruditu zitzaizun Astigarraga?

Eskola utzi eta etorri nintzen lanera. Niretzat hau herri handia zen. Eguneroko erosketak egiteko dendak egoitea deigarri egin zitzaidan garai hartan.

Orduko pasarterik izango duzu...

Bai. Nik ez nekien sukaldean eta koliflora prestatzeko eskatu zidaten etxekoek. Amak barazkiak prestatzeko txikitu egiten zituela banekien eta nik ere koliflora txiki-txiki egin nuen. Egun horretan koliflora purea jan genuen, baina horrela ikasi nuen sukaldean.

Eta 17 urterekin ezkondu zinen.

Bai, ezkondu eta gizonaren etxera joan nintzen bizitzera bere aita-ama eta anai-arrebekin. Haurrak ere hasi ziren iristen, 8 guztira, eta lan eta lan joan ziren sasoiko urte haiek.



Nola gogoratzen duzu garai haietako Astigarra-ga?

Denok ezagutzen ginen, plazako jendea bat ginen. Haurrek bertan jolasten zuten eta urte askotan apenas aldatu zen herria. Markesaneke pretila, barruan baratzak eta bi aldeetara errepidea.

Eta zuek lan eta lan?

Bai, etxeko lanetan koinata asko laguntzen zidan eta nik josten ikasi nuen. Jostuna izan naiz. Aste barruan herriko jendearentzat josten nuen eta jaietan etxekoen-tzat. Beraz, igandetan irteteko konturik ez zegoen.

Senarrak berriz lantegian eta baratzean egiten zuen lan. Anai-arreba zaharrenek txikiak zaintzen zituzten eta opor garaian sosa batzuk ateratzeko mutilak kamioiak deskargatu eta neskak ume zain ibiltzen ziren.



Eta irteerarik?

Gure irteera gehienak ermita ezberdinetara izaten ziren, haurrekin. Ni plazako Sabinakin joaten nintzen. Umeak hartu eta Zikuñagara haurrak bedeinkatzera joaten ginen, negartia zelako, Ubara lo ondo egiteko eta Santiomendira kukutx ez-tuletik babesteko.

Eta Donostiara joatekotan enkarguren bat egitera. Ohikoena mertzerira joatea zen, joste lanetarako zerbait behar nuelako.

Seme zaharrena soldaduska egitea Andaluziara joan arte ez nintzen inguru honetatik irten ere egin.

Eta zertan aldatu da gehien Astigarra?

Garai batean Astigarra baratzez josita zegoen. Ia familia guztiek zuten ortua, etxerako eta kanporako lantzen ziren barazkiak, gero Bretxan saltzen ziren asko. Gaur egun, berriz, ia ez da baratzerik ikusten.

Eta Santio jaiak gainean ditugunez, nola-koak ziren festak zuretzat?

Ezkonduta aurretik sekula ez nuen lortu 10ak baino beranduago etxera itzultzea eta ondoren Santio jaiak lan eskerga ziren niretzat: bazkari familiarra prestatu behar eta festetarako jantziak josi behar presaka. Santio egunean bertan mahaitik altxa eta azken puntadak ematen aritzen nintzen.

Niretzat jai eguna San Antonio eguna zen. Haurrak hartu eta Epelera familiarengana joaten nintzen. Orduan bai lasai bazkaltzera!

Eta 65 urte Umakonean egin ondoren, 2011n bota behar zutela eta etxea utzi behar. Nola gogoratzen dituzu egun horiek?

Tristura handiarekin. Oraindik ere handik pasatzera-koan etxearen zoko guztiak jartzen zaizkit begi aurrean eta gure zakurrak ingurua usaintzen jarraitzen du. Nahiz eta orain etxe berria estreinatu eta gustura gauden, zaharra faltan botatzen dut.

Zer oroimen dakarzkizu Umakoneko etxeak?

Oroimen guztiak... Haurrak bertan jaio ziren baina gehien-gehien gogoratzen dut etxeko sukaldea. Mahaia beti jarrita, beti prest, sukalde ederra beti jendez beteta.

Sukaldean egiten genuen bizi osoa, eta kanpoko atea beti irekita zegoenez, soka batetik heldu, Miren!!! oi-hu egin, eta mundu guztia biltzen zen gure sukalde-ra. Ni beti izango naiz Umakoneko Miren.

Eta orain?

Orain, amonduta, noizbehinka paseotxoa ematera irteten naiz eta orain ere plaza da gure topaleku. Sabina dut lagunik handiena eta bertan izaten gara kontutan. Dena den, orain aldaketa guztiekin plazan ez dago garai bateko saltsarik.

//GARBIÑE SAN MIGUEL

BI DANTZA ZAHAR SAGARDO BERRIAREKIN DASTATZEKO



Argazkien iturria: Sagardoaren Lurraldea

Sagardo Berriaren eguneko protokoloa atontzen laguntzeko aukera, eta ondorioz, sustraiak lurrean eta sagar ederrez hornitutako adarrez oparo ageri den festa ezagutzeko aukera izan dugu 2015. urte honen hasieran. Urtebete aurretik iritsi zitzaigun Sagardoetxearen eskutik txotx irekiera ezagutu eta bere errituala egituratzen laguntzeko gonbidapena.

Ikerfolk elkarteak, Juan Antonio Urbeltz buru duela, eta honen baitako Argia dantzari taldeko Iñaki Arregi, Jexux Larrea eta Fernando Aristizabal dantza-maisuak aritu dira erritualari forma ematen. Dantzan eta dantzaz dakidan apurra horiekin ikasitakoa naiz neu ere, eta dantzan. com elkartearen babesean, pozik jaso nuen Sagardoetxeak jarritako erronkari lankidetzan erantzuteko gonbidapena. Aurretik Sagardo Berriaren eguneko ekitaldian egiten zuten bezala, oraingo proposamen koreografikoak Astigar dantza taldeko dantzariak gorpuztu dituzte.

Sagardoaren kultura, sagarraren dantza

Sagardotegiaren kulturen berezko ongarria duen txalaparta, eta sagarra eta sagardoarekin lotutako sagar-dantza dira Sagardo Berriaren eguneko protokolorako proposatutako lehen plateraren osagaiak. Baztango sagar-dantzan, lau danbolinausiek sagarrak dantzatzen dituzte, eta beraiekin da zerbitzaria, sagardo freskoarekin dantzarien ezarriak asetzeko prest.

Baztanen iraun eta biziberritu den sagar-dantza, Baztango herri gehienetan dantzatzen zen, baina Arizkungoa izan da etenik gabe gaurdaino iraun duena. Azken urteotan Erratzu eta Amaiurren, tokian-tokiko aldaerekin, baina egitura nagusia berberarekin, berreskuratu da. Aita Donostiak eta Resurreccion Maria de Azkuek jaso zituzten



1920ko hamarkadan sagar-dantzen zenbait doinu aldaera, eta horietan oinarrituta 1928an sortu zen Saski Naski ikuskizunerako sagar-dantzan oinarritutako koreografia.

Arizkungo sagar-dantza izan da Sagardo Berriaren eguneko sagar-dantza prestatzeko erabili den eredua. 1967an, Maurizio Elizalderekin ikasi zuten Argiako dantzariak Arizkungo sagar-dantza, eta 47 urte beranduago, haren lanaren jarraitzaile den Patxi Larralderen laguntzarekin atondu dute Astigar dantza taldeko dantzariak dantzatu duten sagar-dantza.

Aureskutik sokara: Sagardogileen soka-dantza

Aureskua eta soka-dantza, gauza bera izan daitezke baina bata bestearen zatitzat ere har liteke. Soka-dantza izan da Euskal Herrian luzaroan erromerietako dantza nagusia. Dantzariak elkarri eskuak eman, eta soka ateratzen ziren plaza-ara. Esku-dantza, dantza-soka, soka-dantza edo aureskua, izen ugari jaso ditu dantzak. Soka horretako lehen dantzariak, esku-dantzaren aurreko eskuak, alegia, aureskuak, garrantzia berezia zuen eta hainbat garai eta tokitan aureskua izenarekin dantza osoa izendatzera iritsi zen. Soka-dantzan aureskuak egiten zituen dantzak sokarik gabe egiten diren uneak dira gaur egun auresku bezala ezagutzen ditugunak, eta horixe

zen txotx irekieran Astigar dantza taldeko dantzari prestuek egin ohi zutena.

Euskal erritual eta protokoloen artean, ohorezko esku-dantzak, agintarien soka-dantzak edo gremioen aureskuak ohikoak izan direnez, dagoeneko dantzatzen zen aureskua, babesa eta zentzua emango zion sokarekin osatzea izan zen mahai gainean jarritako proposamenetako bat. Kofradia baten soka-dantza gainera, Sagardogileen esku-dantza.

Sagardogileak eskuz esku elkar lotuta, soka bereko kideak direla irudikatuz, ohorea soka-dantzan parte hartzea eta soka-dantzako esku izatean datzala agerrarazten dute. Sagardoa eta sagardogileak dira protagonista soka-dantzan, eta aureskua eta atzeskua beraien ordezkari dira. Soka-dantzak egiten die harrera urteroko gonbidatuei eta sagardogileen abegikortasuna adierazten da, gonbidatu bereziei eskainitako aureskuaren bidez.

Azken urteotako aureskuaren gehiegizko erabilpenak aureskua bera debalatu du. Edonoiz eta edozertarako egiten da aureskua gaur egun. Talde baten dantza errituala zena, bakarlari baten erakustaldi indibiduala bihurtu da. Sagardo Berriaren eguneko erritual koreografikoan tradizioa aukera eder bihurtu da protokoloa zentzuz bete eta dantzak apaingarri hutsetik harago indar sinbolikoz janzteko.

Hau da aurtengo sagardo berriaren dantza berria.

//OIER ARAOLAZA

GOIATZ ERRIBERA eta TXANELA ISTRIPUA URUMEAN



Udatiarrak gabarran Urumean gora, Goiatz parean, XIX. mendearen bigarren erdian. Didier Petit de Meurville

Egun Martutene auzokoa, lehen Amarakoa, eliza kontuetan Astigarragara jo izan dute Goiatz Erriberako bizilagunek. Baserri horretako seme den Xanti Aiestaran Oiartzabalekin (1932) luze jardun dugu garai bateko bizimodua eta kontu zaharrak gaitzat hartuta. Besteak beste, errioko arrantza, txanelak, gabarrak, eta errioa zeharkatzeko txanela-pasabideak aipatu dizkigu. Ondorengo lerrootan duzuen, txanela-pasabide horietako batean pasa den mendearen hasieran gertatu zen istripu larri baten xehetasunak dira, solasaldi horretatik ateratakoak.

Astigarraga parean, Urumeaz bestaldera dauden bost baserri dira gertaera honetako protagonistak. Errioa eta trenbidearen artean, Martuteneko erriberatan daude bost baserri horiek, landutako baratze sail eta negutegi luzez inguratuta: Goiatz Erribera, Okondotegi, Olatxo, Anbotegi eta Txurriategi. Istripua gertatu zenean bost baserriak erabat bizirik eta jardunean bazeuden ere, gaur egun, lehen hirurak besterik ez dira zutik geratzen. Bizirik daude gainera hiru horiek, eta bizimodu berriak ekarri dituen ohitura aldaketa eta garraio azpiegitura-lan handiei aurre egin eta nola-hala oraindik eusten diote lurra landu eta Donostiako azokak barazki freskoz hornitzeari. Anbotegi eta Txurriategi, be-

rriz, biztanlerik gabe geratu zirenetik, etxejabeek kasurik egin ez, eta hondakin bihurtu dira, nahiz eta oraindik hor jarraitzen duten.

Goiatz Erribera baserrian jaiotako Xantik aipatu digunez, Donostiako azokara joateko egunero zeharkatzen zuten errioa, beste ertzean, berehala baitzuten tranbiaren geltokia: “Egunero-egunero berdurekin txanelean pasa eta tranbera joaten ginen. Martutenera Arratolen barrena joan behar bagenuen kilometro bat gehixeago zen. Ni mutil kozkorra nintzela ama joaten zen, 16 urte nituela arreba, eta 26 nituenean hasi nintzen neroni, baina ordurako geratu zen tranbea eta autobusean hasi nintzen. Astigarragara mezetara joateko ere

hortik pasatzen ginen. 1948. urte inguruan sortu zen parrokia Martutenen, baina, halere, askotan genuen ohitura Astigarragara joatekoa. Txanelean pasa, mezetara joan eta bueltan, berriro hartzen genuen txanela. Halere, pixkanaka hona (Martutenera) jarri ginen. Goiatzeko bi familiak erabiltzen genuen, batez ere, pasoa, Almandoztarrek eta guk, Aiestarandarrok. Salsamenditarrek Martutenera joateko joera zuten”.

Errioa zeharkatzeko hiru txanela-pasabide zeudela zehaztu digu Xantik, errio ertzean zeuden hiru baserrietan bana, Goiatzen, Anbotegin eta Txurriategin. Hiruetatik azken hori omen zen erabiliena, eta oihuka aritzeaz aspertuta nonbait, azkenean tinbre elektrikoa jarri zuten. Hala, Txurriategin tinbreak jotzean, bertakoek bazekiten beste aldean bazela norbait txanela eske errioa zeharkatzeko. Halere, gaurkoan kontatu nahi dugun gertaera, Anbotegi baserriaren parekoan gertatu zen, ez Txurriategikoan.

Haga edo hagaia bidez txanela kontrolpean eramatea ez omen da hain erraza, marea jaistean ur-korrontea sortzen baita. Errioa ur-karga edo indar handiarekin datorrenean, gainera, ontzia gobernatzea zaila izateaz gain, arriskutsua ere bada. Horren adibide izan daiteke joan den mendearen hasieran erriberetako baserri horietako bizitza erabat asaldatu zuen istripu larria.



Goiatz Erribera, gaur egun

Olatxo baserriko gizonak, Okondotegikoak, Anbotegikoak eta Txurriategikoak gaztaina-jatea egin omen zuten Anbotegi baserrian. Jarraian, sagardoa edatera Zapinera pasa ziren txanelean, errioaren beste aldera. Bueltakoan euri asko bota eta urak bizituak egon arren, Txurriategikoak haga hartu eta txanelean pasatzen hasi ziren, nahiz eta beraiek ere karga pixka bat ere bazeramaten. Ezin izan zuten, ordea, korrontea gainditu, eta errioan behera eraman zituen. Orduan Anbotegikoak esan omen zion haga zuenari:

- *Ekartzak nei agai oi, nik emangoit.*
- *Hi ni baino geio al aiz? Txurriategikoak.*
- *Ez, baina nik emangoit, erantzun Anbotegikoak.*

Okondotegikoa eta Olatxoakoa atzeko txopan eserita zeuden, eta Txurriategikoari esan zioten:

- *Orrek emengo berri geio zekik eta utziok orri.*

Txurriategikoak haga eman omen zion, baina txanelean aurretik atzera esertera zihoanean balantza egin, eserita zeudenen gainera joan eta uretara erori ziren hiruak. Anbotegi Gorrikoa, hagarrekin geratu zena izan zen, txanela Goiatz Erribera parean baztertu eta bizirik atera zen bakarra.

Goiatz Erriberako biztanleak bitartean sukaldeko epelean zeudela, bat-batean oihuka agertu zitzairen Anbotegiko andrea, hark nonbait etxera noiz ailegatu ziren zain, ikusi egin baitzuen gertatutakoa. Ibili ziren Goiatzekoak bilaketa lanetan, baina alperrik, arrastorik ere ez zuten aurkitu. Errioan behera, urruti topatu zituzten hurrengo egunean desagertutako hiruen gorpuak.



//ASIER AGIRRESAROB
// JOSU TELLABIDE

San Isidro egun handiaren kronika

Goldea elkarteak 24 urte daramatza San Isidro eguna antolatzen, eta urtetik urtera, gero eta ekintza esanguratsuagoak ikusteko aukera eskaintzen digu herritarroi.

Aurtengoak, ohiko prozesioaz, mezaz, hamaiketa-ko herrikoiaz eta trikitilarien eta bertsolarien saioez gain, hiru interesgune nabarmen izan ditu: gure baserrietako barazki eta produktuen erakusketa eta salmenta, idi demak eta baserritar zaharrei egindako omenaldia.

Baserriak plazara. Herriko sei baserritan bildutako uzta ederra plazara ekarri digute Bordatxoko, Larra-biko, Latxako, Guardiko, Taulako eta Lizardiko gure baserritarrek.

Idien marka historikoa. Bi idi demetan idiek oso goian jarri dute muga. Batean, Orioko Iñaki Olidenen idi pareak, 1.700 kiloko harriarekin, 60 plaza egin ditu, 30 minututan, eta bestean, Loiuko Iñigo Aurrekoetxearen idi pare galantak 60 plazako marka historikoa jarri du, 3.298 kiloko harri handiarekin eta 50 minututan. Izan ere, orain arte zegoen markarik onena 1950eko maiatzaren 21ean Domingo Ubarretxenaren idi pareak egindakoa izan da: 42 plazakoa.

Baserritarrak, herritar kuttun. Bazkal ostean, bi baserritarri urtero egiten zaien omenaldia izaten da eguneko une hunkigarria. Antolatzaileek zabaldutako errekonozimendu-mezuez gain, bertsolariek ere goi mailako lana egiten dute beraien bertso sakon bezain emankorrekina, omendutakoek eta bertaratutakook gozamenaz beteriko eguna izan dezagun.

**Astigarraga
ISIDRO 2015**

**Iñigo AURREKOETXEA
Idijabea**

**Idi-pareak egindako marka: 60 plaza
3.298 kiloko harria - 50min**

Plaza	Denbora	Plaza	Denbora
10	9:04	40	35:21
20	17:45	50	43:10
30	26:33	60	49:52



Astigarragako JAIĀK 2015





Vztailaren 23a, osteguna

- 11:00** IGELAREN JOKOA haurrentzat Norberto Almandoz plazan.
- 12:00** TXUPINAZO TXIKIA eta BURUHANDI eta ERRALDOIAK AHIT txarangarekin.
- 14:00** HERRI BAZKARIAK: Foru plazan haur-bazkaria eta Joseba Barandiaran plazan gaztelekuko bazkaria.
- 16:30** HAUR BERBENA eta JOLASAK Foru plazan. Jarraian TXOKOLATE JATEA
- 19:00** TXALAPARTARIAK, PREGOIA eta TXUPINAZOA Foru plazan.
- 19:30** AKELARREA.
- 20:00** Gazte Asanbladaren txosnaren irekiera
- 23:00** DISKOTEKA Joseba Barandiaran plazan. DJ GAUA txosnaren karpan.

Vztailaren 24a, ostirala

- 11:30** HAUR PARKEA ikastolako atarian
- 14:00** HERRI BAZKARIAK Txosnako karpan eta Galtzaur elkartean.
- 15:30** DANTZALDIA N. Almandozen.
- 16:00** HAUR PARKEA ikastolako atarian eta Txomiñenea pilotalekuan
- 16:30** TXARANGA txosnako karpan.
- 19:00** APAR FESTA Foru plazan
- 19:00** TXARANGA
- 22:00** KONTZERTUAK txosnako karpan.
- 22:30** MUSIKA IKUSKIZUNA J Barandiaran
- 00:00** Blues musikako TXARANGA.

Uztailaren 25a, larunbata

- 9:30** TXISTULARIEN DIANA BEREZIA.
- 9:30** EUSKADIKO TOKA TXAPELKETA Norberto Almandoz plazan.
- 10:00** XV 3x3 SASKIBALOI TXAPELKETA kiroldegian.
- 10:00** HAURRENTZAKO VIII TXIRRINDULARITZA PROBA Arrobitxulon.
- 11:00** MEZA NAGUSIA Santiagomendiko Done Jakue ermitan.
- 11:30** JOKO TRADIZIONALAK 4-11 urte bitarteko haurrentzat Mundarro
- 12:30** UDALBATZAREN SOKA-DANTZA
- 13:00** TXARANGA Foru plazatik hasita.
- 18:00** DANTZA-ERAKUSTALDIA Txomiñenea pilotalekuan.
- 19:30** Sta Ana eguneko idi-demako IDIEN PISATZEA Foru plazan.
- 20:00** TXARANGA Foru plazan.
- 20:00** SOKAMUTURRA TXIKIA Foru plazan.
- 20:00** BELDUR BARIK egitasmoaren informazioa Joseba Barandiaran plazan.
- 22:30** MAGIA IKUSKIZUNA Joseba Barandiaran plazan.
- 23:00** KONTZERTUA txosnako karpan.
- 23:45** LARRAIN-DANTZA herrikoia Foru plazatik abiatuta.
- 00:30** KALEJIRA "beldurgarria" Joseba Barandiaran plazatik abiatuta.
- 01:30** KONTZERTUAK txosnako karpan.



Uztailaren 26a, igandea

- 9:30** ITURENGO JOALDUNAK eta Astigarragako TRIKITILARI GAZTEAK .
- 11:30** BURDINAREN FORJA erakustaldia Foru plazan.
- 11:30** SAGARDO DASTAKETA.
- 11:30** IDI DEMA 1.700 kiloko harriarekin: Matxain, Oliden eta Kixkurra.
- 12:00** Aitor Mendiluze eta Unai Agirre BERTSOLARIAK Foru plazan.
- 14:30** HERRI BAZKARIAK.
- 18:00** HERRI KIROLAK Foru plazan: gazteen arteko probak, sokatira eta Astigarragako emakumeen 1. trontza txapelketa.
- 18:00** BINGOA Galtzaur elkartean.
- 19:00** DANTZA IKUSKIZUNA Joseba Barandiaran plazan.
- 19:30** Astigarragako Trikitilari gazteen erromeria Foru plazan.
- 20:00** ABESLARIAK txosnako karpán.
- 20:00** BERBENA Joseba Barandiaran.
- 20:00** HEGALUZE PINTXOAK Joseba Barandiaran plazan.
- 22:00** ABESLARIAK txosnako karpán.
- 22:30** BERBENA J. Barandiaranen.
- 22:30** ZEZENSUZKOA J. Barandiaran.



Euskaldunen eta Katalanen arteko trukeak 25 URTE

.....
Kizkitza Galarza



1990eko argazkia



2015eko argazkia

Aurtengoa izan du 25. urtea Arantzazuko Ama Ikastola (Martutene-Astigarraga) eta Linars del Vallès herrian (Katalunia) kokatutako Ginebró ikastetxearen arteko trukeak. 25. urtea, eta oraingoz behintzat azkena.

1990. urtean egin zen lehen trukea, hemengo eta hango 6. mailako ikasleen artean. Gela bakarrekoa zen garai hartan maila hori, eta ikastolak izandako ibilbidearen ostean, hiru gelatako ikasleek parte hartu dute aurtengo trukean (104 ikaslek guztira). Tarteko urte batzuetan ikasbide ikastolako ikasleek ere hartu zuten parte trukean, Arantzazuko Amako ikasleen kopuruak eta Kataluniakoak orekatu nahian.

Ez gara oso oker ibiliko 25 urteko truke horietan parte-hartzaileak 1.500 ikasletik gora izango direla baieztatzen badugu. Ez da nolanahiko kopurua. Izan ere, gutako nork ez du izan familian ikasle katalan horietako baten bisita?

25 urteko esperientziaren balorazioa egiteko ez dugu Mari Karmen Iraola irakaslea baino pertsona hoberik. Lehen urteko trukean parte hartu ez bazuen ere, urte askotan izan du bere gain trukearen antolaketa, urtez urteko 6. mailako tutoreekin batera. Esperientziari buruz galdetutakoan argi du merezi izan duela, trukeak une batzuetan lana eta sakrifizioa eskatu izan badizkio ere, esperientzia zoragarria izan dela, bestela ez baitzuen iraungo proiektuak 25 urte. Lerro xume hauen birtatez esker ona helarazi nahi diogu Mari Karmeni. Mila esker, Mari Karmen, Astigarragako guraso eta ikasle asko eta askoren izenean, proiektu honi egin dion ekarpenagatik.

Arantzazuko Ama ikastola banatzeak eta ikasleen kopuruen bilakaerak ezinezko egiten dute trukearen proiektuari aurrerantzean eustea, baina etorkizunean ere izango dute Astigarragako Herri Eskolako 6. mailako ikasleek antzeko beste esperientziaren bat bizitzeko aukerarik.

EASOk aurten 75 urte bete ditu, eta abesbatzaren urterik oparoenak ezagutu ditu Andoni Arzallus tenoreak, 35 urte eman baititu bertan kantari. Stravinskyk berak zuzenduta, konpositore errusiarrak idatzi zuen Oedipus Rex abestu zuen Portugalen Arzallusek bakarlari. Berezi gogoan duen une hartaz, eta beste hainbatez hitz egin dugu Ergobiko semearekin.



Argazkia: Iker Blanco

ANDONI ARZALLUS, ERGOBIKO ERRESIÑULA EASO ABESBATZAN

.- Andoni, noiz sartu zinen EASOn?

1953an, 21 urte nituela. Astigarragan bazen Markos Arruabarrena, oso baritono ona, kategorikoa, musika bazekien. Elizako koroan kantatzen zuen, eta ni ere han hasi nintzen. EASOn sartzeko esan zidan, eta sartzeko azterketa Juanito Urteaga zuzendariak egiten zuen. Markosek esan zidan halako orduan Euskal Bilerara joateko froga egitera. Gogoratzen naiz, udara zen, beroa, leihoak zabalik zeuden, eguerdi-eguerdia jendea ederki zegoen txakolina edanez. Sartu nintzan eta esan zidan, “bueno, zer dakik kantatzen?”, eta nik elizako abestiak nekizkiela, “Mesias badakit -esan nion- gabonetakoa”, eta han hasi nintzen uda betean Mesias kantatzen. Hantxe esan zidan “EASOn haiz”. Zalantza izan zuen tenore lehena edo bigarrena sartu, baina lehena sartu nintzen, eta geroztik beti tenore lehena izan naiz. Ez zen xamurra izaten, garai hartan jende asko gelditzen zen EASOn sartu nahi eta ezin. Arezton, Langollenen eta Lillen lehen sariak irabazi genituen eta oso talde handia zen.

.- Zenbat zineten EASO abesbatzan?

35 ginen, ez ginen 40ra iristen, baina denak onak. Sartu nintzen eta harrituta gelditu nintzen hango ahotsekin. Izugarriak ziren, handiak ... eta ni nere artean “nora etorri naiz honera?”.

.- Eta zuk ahotsa prestatua al zenuen?

Nik ez dut inorekin ikasi, ahotsa naturala ibili izan dut beti. Besteek nola egiten zuten entzunez ikasi nuen. Carlos Fagoagari esaterako, ahots zoragarria zuen, Lasak ere bai ... Baina EASOko bakarlari askok kantu klaseak hartzen zituzten. Askok Maria Teresa Hernandez, MAITEA abesbatzaren zuzendariarekin.

.- Eta halako ahots handiak EASOn bakarrik al zeuden?

Ez, jeneralean, estiloa hori zen Europan. Zeharo aldatu da, gaur ez dago konparatzerik. Gure zuzendariak beti Errusiako abesbatzetara ohitu nahi gintuen, erreferentzia hori genuen. Noizbehinka irratian entzuten genituen Errusiako armadako abesbatzak ...

.- EASO izan zen JAROFFen abestiak Euskal Herrira ekarri zituenaz eta?

Bai. Bastidak entzun zuen Errusiako disko bat eta berak egin zituen moldaketak eta disko bat osorik grabatu genuen Errusiako abestiek osatuta. Behin San Petesburgora joan ginen, eta KALINKA kantatzeko atrebentzia izan genuen Jauregi eder batean. Hurrengo egunean parke handi batean abestu behar genuen, tartean, Jose Luis Del Valek “Caminito de Aviles” kantatzen zuen bakarlari. Nonbait bera galdu, hasi genuen kontzertua bera gabe. Atsedenera iritsi eta ez zela azaltzen, eta Bastidak esan zidan “Andoni



Aita Madinak, Andoni Arzallusi erregalatu zion argazkia, ARRIAGAn, ARANTZAZU poeman bakarlari kantatu eta gero. Andoni Arzallus zuzendariaren eskuinetara eserita dago. Argazki azpikoa, Madinak bere eskuz idatzitako testua.


hik kantatu beharko dek”, ez nuen sekula kantatu, ni beti bigarren, segundon paperan, baina gero ederrak tokatzen zitzaizkidan. Deskantsuan entsaiatu eta hantxe joan zen. Madinaren ARANTZAZU poemarekin ere antzekoa gertatu zitzaidan. Carlos Fagoaga zen bakarlari, baina ez kantatzea erabaki zuen, Maitea abesbatzarekin gertatu zen gora behera batengatik, eta azkenean, estrenorako lau egun falta zirela han esan zidan Bastidak nik kantatu beharko nuela. Lau egunetan ikasi eta kantatu, Kurtsalen inauguratu genuen. Aita Madinak, estrenoko argazkia bidali zidan etxera.

.- Errusia aipatu duzu, baina behar bada zuk Errusiarekin izan duzun harreman handiena IGOR STRAVINSKY konpositore handiaren eskutik izan zen nuen, kontaiguzu ...

Donostian kantatzeko prestatu genuen Bastidarekin STRAVINSKYren OEDIPUS REX lana. Lan handia, bakarlari guztiak etxeokak zirela. Garai hartan EASOren presidentea Modesto Escobosa zen, Por-

tugalgo kontsula zen Donostian, eta Lisboan antolatzen zuten GULBENKIAN izeneko jaialdian parte hartzeko abesbatzaren grabazioa bidali zuen. Antolatzaileek onartu egin zuten, eta Lisboaan joan ginen, STRAVINSKYren esanetara berak idatzitako lan handi hau kantatzera. Hiru bakarlari nagusiak profesionalak ziren, Gerald English tenorea, Regina Sarfaty mezzoa, eta Raimund Herinx baritonoa, eta haiekin kantatu genuen bakarlari EASOko Rikardo Muniain baxuak, nik neuk tenore, eta Paulino Caballero baritonoak. Handia izan zen, pentsa, antzokia beteta eta Stravinskyren esanetara.

Oso musiko handia zen, eta ordurako zahartu xamar-tua bazegoen ere genio bizikoa. Gogoan dut iritsi ginenean Robert Craft, Stravinskyren bigarrenarekin hasi genuela entsaioa, eta ez zuen lortzen gu eramatea berak nahi zuen lekura. Hasi, saiatu, baina ezin. Hala-ko batean altxa zen Stravinsky, antzokiko butaketatik ari baitzen entzuten entsaioa, lagundu genion oholtzara igotzen, hartu zuen batuta, eta aizu, hasi eta bukatu. “Perfekto –esan zuen- oso talde ona”, eta hala kantatu genuen. 1966. urtea zen.



Igor Stravinsky eta Andoni Arzallusen argazkiak, Arzallusek bakarlari gisa kantatu zuen zatiaren partitura, eta GULBENKIAN jaialdiko egitaraua, Jose Maria G. Bastida, EASO abesbatzako zuzendariaren zorion sinadura, eta bakarlari nagusien sinadura duena.



.- Bakarlari askotan kantatu al duzu EASOn?

Bai, Zatoz kantatu dut, Hator hator, Izar Ederra, Hara Nun diran, Haurtxo Txikia, Campanita, lehenago esan ditudanak ... eta Ertizka otxotean beste 35 urte eman nituen, eta han ere bakarlari kantatu ditut Argia Zelutik, Oles Ezkonberririk, Dringilin Dron eta beste asko.

.- Ze erreperitorio zenuten EASOn?

Ikusgarria, lehenengo Euskal Herrikoak kantatzen genituen, gero, esan dizudan bezala Errusiakoak ekarri genituen, eta tartean Elizako doinuak, sinfonikoak, orkestrarekin...

.- Denbora asko beharko zenuten horiek denak prestatzeko... musika irakurtzen ez baitzenuten denek jakingo?

Ez pentsa. Ni Iruñean ibili nintzen kolegio batean, eta han musika banda genuen eta errekreoan musika ikasteko aukera. Nik tronboia eta bonbardinoa jotzen nituen, baina gainera Astigarragako Elizako parrokiak kantatzen nuen. Garai

hartan, parrokiak koro asko zegoen, eta kantari gehienek zekiten solfeoa, apaizak edo organistak erakutsita. Orain ibiltzen dira organistak eliza batetik bestera saltoka, baina lehen ez, parrokiak baikoitzak zuen organista, eta hark, edo apaizak edo txistulariak erakusten zuten musika. Astigarragan Txomin San Sebastianek bezala.



Andoni Arzallus
eta Ramon Santxez esataria biak solasaldian.
Argazkia: Iker Blanco

.- Esan dugu Markos Arrubarrenak eta zeuk kantatu zenutela EASOn, Astigarragako bakarrik izan al zineten?

Ez, Markosek, nik eta Iñaki Beristainek kantatzen genuen EASOn. Beristain ez zen hemen jaioa baina Astigarragan bizi zen. Orfeoian kantatzen zutenak ere baziren, Jesus Azurmendi, Joxe Aristi, Joxe Zubiaurre, Hilario Orkaiztegi eta Joxe Kortajarena. Eta bazen beste bat Maitea abesbatza kantatzen zuena. Maitean emakumeek bakarrik kantatzen zuten. Maria Teresa Hernandez irundarra zen zuzendaria, genio biziko emakumea, baina zuzendari eta irakasle ona. EASO abesbatza, gizonena bakarrik izaki, MAITEA abesbatzarekin elkartzen ginen gizon-emakumeentzat idatzitako obrak kantatu behar genuen gehienetan. Oso talde ona zen, eta hemen kantatzen zuen Amaia Almandozek, Norberto Almandozen ilobak.

Astigarragako 9 abeslari, orduko Gipuzkoako abesbatzarik onenetan. Gogoan hartzeko moduko marka. Andoni Arzallus, bere 82 urtetan kantari entzun nahi duenak, baita bakarka ere, igande goizetan Astigarragako elizara, meza nagusira joan besterik ez du. Bestela, hitz eman digu, abenduaren 19an, EASO abesbatza Victoria Eugenia antzokian, 75. urteurrenerako prestatzen ari den kontzertu berezian kantatuko duela. ●

Ramon Santxez



ELIZA SUTAN

Haizearen besoetan, irrintzi urrun baten oihartzuna iritsi zait. Amorruez beterik, ekaitzaren aldarri. Baso ilunaren barnetik airean zabaltzen ari den kedarra ikusten dut. Eliza sutan, mende-kuaren aldarri. Atzo ez bezala, gaur borroka egin beharko dut. Aizkora odolez zikindu. Abarkak, lokatzez.

Haritz zaharren itzalpetik atera naiz, arranoaren ahotsa ezpainetan. Mendian behera noa, goaz, gorrotoak itsuturik. Ehunka gezik argitu digute gaua. Zeruan margotutako suzko malkoak dirudite nire begietan. Etsaiaren herriaugarretan kiskaltzen hasi da. Zergatik oihu horiek? Ez al da ba su horixe bera Jainko Bakarraren arima garbitzaile?

Egurrezko atakaren gainetik salto egin eta arerioaren parera erori naiz, estropezuka. Arkaitzen lantza luzeak oztopatu du haren espata bizkorren bidea. Makurtu egin naiz bere eskui-neko hanka aizkorakada bizkor batekin kolpatuz. Asierrek moztu dio lepoa igitaiaz, irtetear zen alarua odolduaz, isilduaz. Nire parean belaunikatu da, indarge, eskuak txorrota gorria geldia-razi nahian.

Aurpegia ziprztindu dit, baina errukirik ez dute topatu begi isilek.

Aurrera egin dugu herrixxako kale estuetan zehar. Enara eta Maider gogoan. Sorginak. Gure itxaropen suaren zaindari, errauts bihurtu arte iraun zuten. Naturarekiko miresmena, Amalurra- ren sekretuen jabegoa, bekatu. Orain, gure kemena pizturik mantenduko duten su bilakatu dira.

Su horren itzalen artean dantzan aritu naiz. Herioren dantza iluna. Aizkora galdu dut. Odolak estali dit gorputza. Abarkak lokatzetan hondoratu zaizkit. Irrintzi bat entzun dut. Heldu zait ar-basoekin biltzeko unea. Askatu da nire arima. Banoa, haizearen besoetan.

//Urtzi Leonet Santa Cruz

EUSKAL KULTURA?

Pirinio atlantikoan magalean kokatzen den lurra, Euskal Kulturak eragindako Lurraldea¹, Euskal Herria da.

XXI. mende hasieran Euskal Kulturaren definizio bat ematea zaila egiten zaigu. Egia esanda, Historiaren edozein momentutan Kultura hitza definitzea zaila da, baina Kultura eta Gizartea oso lotuta joan dira beti. Baina artikulua honetan ez dugu egingo urteetan saiatzen ari dena... hau da, **Kultura zer den esatea, izenburuari galdera ikurra jarri diogu eta.**



Kultura hitzaz aparte, beste hitz bat agertzen zaigu: “euskal”. Askotan suertatzen zaigu “euskal” hitza erabiltzea arreta handia jarri gabe. Euskal sukaldaritza, euskal tomatea, euskal etxea, euskal taberna, euskal linde... Zer da euskal? Euskal erroen atzean zer dugu? Aurren, Astigarragako eskolako haurrak bertsotan ikasten aritu dira eta hara non, Euskal Herria gaia jarri diote. Besteak beste beraien bertsoetan (10 urteko haurrak dira) honakoak agertu dira: Ohitura zaharrak, mendiak, ibaiak, dantza eta sagardozaleak... Euskara, hizkuntza zaharra, desagertzen ari da poliki, poliki?? Euskalduna zer den aipatzen dela euskara maitatua burura datorrigu, baina hori al da guztia? Euskalduna da EUSKAL horretan dagoen bakarra?

La palabra EUSKAL también forma parte de ideas

como EUSKalezalea, es decir, que siente admiración por lo vasco, e incluso podríamos hablar de EUSKotarra como aquel que habita en los territorios vascos.

IZENA DUENA omen da. Hori dugu euskal esamolde zaharra. Eta izenak emateko hitzak erabiltzen ditugu. Biblian bertan hitzaren aipamen zoragarria egiten da.

Jn 1,1-5²


1 Hasieran bazen Hitza. Hitza Jainkoarekin zegoen eta Hitza Jainko zen. 2 Hasieran Jainkoarekin zegoen Hitza. 3 Gauza guztiak beronen bidez egin ziren, eta egindakotik ezer ez da berau gabe egin. 4 Hitzarengan zegoen bizia, eta bizia gizakien argia zen; 5 argi horrek ilunpetan egiten du argi, baina ilunpeek ez zuten onartu.

1/ Lurra+Identitatea=Lurraldea (LAFONT, A. (2010) Epistemología de la Ordenación del Territorio. Enfoque Geopolítico. Edt. UPV-EHU)

2/ Jn 1, 1-5 . 1 En el principio existía la Palabra y la Palabra estaba con Dios, y la Palabra era Dios. 2 Ella estaba en el principio con Dios. 3 Todo se hizo por ella y sin ella no se hizo nada de cuanto existe. 4 En ella estaba la vida y la vida era la luz de los hombres, 5 y la luz brilla en las tinieblas, y las tinieblas no la vencieron.

Las palabras y la realidad son una. A pesar de que normalmente las personas no se preocupan mucho por escoger una palabra u otra, la manera en que nombramos las cosas es fundamental para nuestra vida. Las palabras pueden sanar, pueden herir, pueden dar luz, pueden oscurecer nuestra vida. Perder una palabra significa perder una realidad, una manera de entender el mundo. Perder costumbres, perder herramientas u objetos tradicionales significa perder también la manera en que las nombramos.

“Car le mot, qu’on le sache, est un être vivant.
La main du songeur vibre et tremble en l’écrivant ;
La plume, qui d’une aile allongeait l’envergure,
Frémit sur le papier quand sort cette figure,
Le mot, le terme, type on ne sait d’où venu,
Face de l’invisible, aspect de l’inconnu ;
Créé, par qui ? forgé, par qui ? (...)
Les mots sont les passants mystérieux de l’âme.
Chacun d’eux porte une ombre ou secoue une flamme ;”
(Victor Hugo)



Duela urte batzuk, “Hitzak biltzen zituen gizona” (Astigarraga Aldizkaria, 2009) artikulua idatzi nuen. Momentu horretan ohartu nintzen ondare ez-materiala zela Euskal Ondarearen funtsa. Hizkuntza baten hitzak jasotzea eta zaintzea (ondo erabiliak) gure identitatea ondo zaintzeko funtsezkoa da. Urte batzuk pasata eta etengabeko ikerketa prozesuan konturatzen naiz hizkuntza ez dela bera bakarrik identitatearen euskarria, baizik eta baita hizkuntza horrekin izendatzen diren pentsamenduak ere. Berdin zai-gu euskaraz mintzatzea ideiak ez badira gureak.

Pongamos un ejemplo que todos entenderemos. No entraremos en definiciones pero hagamos un ejercicio consistente en leer la siguiente lista de palabras: estado, país, nación, región, pueblo, provincias, comarca, departamento, demarcación, distrito, comunidad, gobierno, administración.... A priori, en muchos diccionarios aparecen como sinónimos, pero... elijamos cualquiera de ellas y pongámosle de prefijo “Euskal-“ (si lo pensamos en euskera) el adjetivo “vasco” si es en castellano, o “basque” si es francés. ¿Sentimos lo mismo al decir Estado Vasco que Departamento Vasco? . Los vascos somos trilingües³ por naturaleza, no entra en la manera de ser de nuestro pueblo la visión del mundo de los monolingües. Si alguien se anima, hay una entrevista a Itziar Plazaola sobre la cuestión del multilingüismo que me pareció muy sencilla de comprender. De esa entrevista extraemos una idea “gizakiok ez gara bakarrik eraginkortasuna, efizientzia, gure nortasuna lantzeko esfortzuak egin behar ditugu, berezkoa dugu gure baitan ahalegintzea, gure bizitzaren zatia baita. Agian horregatik, gure hizkuntzari zor diogu ahalegin hori egitea, ahalegin horiek gure bizitzari zentzua ematen diote.”⁴

Egia esanda, eskatzen badidate Euskal Kulturaren definizioa hainbat ideia etortzen zaizkit burura: Euskara, Ahalegina, Hitza, Ohorea, Tinkotasuna, (ama)Lurra, Eguzkia. Euskal Kultura jator bat definitu ahal izateko, euskara hitz egiteaz gain, honako bi ezaugarriekin deskribatuko nuke: Hitza hitz bete eta burua tinko, bihotza sugarra izan.

Bukatzeko eta hurrengo baterako honako galdera botako nuke:

Gizarterik gabe, ez dago lurralderik, eta lurralderik gabe, ba al da gizarte bat izaterik?

Urkiri Salaberria

3/ Euskal Herrian: Euskara, frantsesa eta gaztelera mintzatzen da eta hiru horietan jaioak beharko genuke izan Zazpi Lurraldeetako anai-arreba guztiak elkar ulertzeko eta bat izateko. Además, es arriesgado dejarse llevar por países monolingües que nos arrastran y arrasan (como las especies invasoras que extinguen las especies locales) con la imposición de sus lenguas. Y en este caso concreto me refiero a la invasión anglosajona que estamos propiciando ¡¡nosotros mismos!!: ¿¿Basque Culinary Center?? ¿¿BEC?? ¿¿I'm basque???. Ez! Mesedez!!! Si nuestra lengua es uno de nuestros mayores tesoros, ¿cómo caemos en la trampa de bautizar “bucles insignia” de nuestra cultura en ... ¿INGLÉS?. Eta berriz ere ozen esaten det, euskaldunak duen berezitasuna eleaniztasuna da... Y esta que suscribe fomenta el cuatrilingüismo de los niños vascos. Envidia me da ir a IKEA y ver que no se cortan ni un pelo y no traducen los nombres de los objetos que venden.

4/ http://www.euskonews.com/0420zbbk/elkar_es.html

ASTIGARRAGAKO BASERRITARREN TXOSTEN SOZIOEKONOMIKOA



Pasa den 2014ko irailean aurkeztu zen udal-letxean, udalak Behemendi elkarteari eskatutako Astigarragako Baserritarren txosten sozioekonomikoa. Txostenaren aurkezpena, baserritarren inguruko lantaldearen baitan egin zen. Txosten hau edonorentzat esku-ragarri dago Astigarragako Udalaren web-gunean (www.astigarraga.net/eu/ficheros/33_5242eu.pdf).

Txostenaren enkargua udalak egin zuen, Astigarragako baserritar talde batek eta herriko eragile batzuek osatutako lantaldeak egin-dako eskaerari jarraituz, herriko baserritarren egoerak kezkatuta. Baserritarren egoera aztertzeke eskaeraren ondorioz gauzatutako azterketa sozioekonomikoa da, beraz. Txosten honek azterketa sakon baten lehenengo pausua izateko asmoa izan du, hau da, etorkizunean azterlan honek jarraipena izatea dute helburu.

Astigarragako hainbat eragilek eta elkartek (Astigar elkarteak, Goldea taldeak...) gutxienez 1982 urtetik adierazi izan dute modu honetako azterketa bat egitearen beharra, eta behin baino gehiagotan izan dira azterketa hori egiteko saiakerak eta eskaerak. Alegia, ez da duela 4 eguneko kezka eta eskaera, jende askoren eta urte askotan zehar egindako lan isilaren fruitua baizik.

Helburua Astigarragako baserrien egoera sozioekonomikoaren oinarritzko diagnostika egitea

izan da, berauen inguruko ezaugarri sozial, produktibo eta baliabide zein prestakuntza mailak ezagutzen saiatuaz. Bertatik ateratako ondorio eta proposamenetatik abiatuta, baserri bakoitzaren egoera partikular eta bereziari aurre egiteko tresna izateko espirituarekin egindako azterketa da, baina baita orokortasunean begiratu beharrekoa ere.

Ikuspuntu lokal batetik bideratu bada ere, aurkitutako gabezi, behar edo potentzialitateak, eskualde mailaren baitan garatu behar-ko liratekeela kontuan hartuta burutu da.

Txostena burutzeko, Astigarragan zutik nahiz erorita dauden 131 baserrien artean, nekazal-abeltzain ustiapena edo sagardotegia duten 46 baserrietara mugatu da azterlana. Azterketaren esparrutik kanpora geratu dira inolako jarduerarik ez duten baserriak edo baserririk ez duten ustiapenak. Datu guztiak osatzeko, alde batetik informazio iturri ofizialek (Eustat, INE...) eta inkesta pertsonalek (jo da. Inkesta horiek apiriletik uztaile bitartean egin ditu baserriz baserri lantaldeak, alde aurretik finkatutako galdegaian oinarrituta.

Jorratu diren ezaugarri nagusiak hauek dira:

- *Ezaugarri sozio-demografikoak:* adina, sexua, biztanleria.
- *Ezaugarri produktibo-ekonomikoak:* ustiapen tipologiarekin estuki lotutako eza-

garriak: produkzio maila, salmenta kanalak, produkzio mota, dedikazio maila, estaldurak, kidetza maila ezagutzeko asmoz.

• *Baserrien gaur egungo egoera eta balio-ondare arkitektoniko edo historikoen identifikazioa.*

Txosten honetan lortutako datuak kasu batzuetan, zorionez, "harrigarriak" izan dira, nahiz eta lantaldeko partaideak Astigarragakoak garen eta kasu batzuetan baserritarrak izan. Honek agerian utzi du modu honetako ekin-tzak egiteko beharraren egokitasuna. Datuak harrigarriak direla esaten dugunean nabarmendu nahi izan dugu sektorean dauden baserritar batzuek duten dinamismoa, jarduera anitza eta diharduten jardueran jarraitzeko asmo eta ilusioa.

Ondorio nagusi bezala datu hauek lortu dira, baserriei eta baserritarrei buruzkoak:

• 43 dira Astigarragan nekazal-abeltzain edo sagardotegi jarduera dituzten baserriak eta % 100 baserrien jabe dira, nahiz eta lantzen dituzten lurren % 11 maizter modura erabiltzen dituzten.

Baserri hauen egoera egokia izateaz gain, guztietatik 36 berrituta daude eta gainontze-koak berritu gabeak. 2 dira inolako pertsona-rik bizi ez direnak, eta besteak ohiko bizileku dira.

Biztanle hauek, modu honetan banatzen dira: 75 emakume eta 65 gizonezko, hau da, guztira 140 pertsona. Adina eta sexuaren arabera hau da pertsonen sailkapena: batez besteko adina 51 urtekoa da eta % 58,57 lan egiteko adinean dagoen arren, % 41,43 lan egiteko adinetik kanpo dago.

Baserritarren adina eta sexuaren sailkapena aztertuz eta baserrietako lanekin jarraitzeko asmoa agertu dutenei kasu eginda, % 60k ondorengotza bermatua izango luke, atzetik datozen gazteei esker. Hori bai, %30ek baino gehiagok jarraipena ziurtatu gabe dutela agertu dute.

Jarduera tipologia ere aztertu da txosten honetan eta nekazaritzako gizarte aseguruaren menpe lan egiten duten 37 baserritarrek jarduera anitza, klasikoa eta zabala burutzen dute. Esan bezala, 23 baserritan (% 45) 3-5 jarduera aldi berean burutzen dituzte eta, aldiz, 14 baserrik (% 33) ez dute inolako jarduerarik.

Nekazal-abeltzain edo sagardotegi jarduera duten baserriak

Zimelurritza	Larrabi	Etxeluze	Telleri Goia	Latxa (Lagatxaga)
Bordatxo 2	Lizardi 1	Lizardi 2	Manixene	Floreaga Zahar
Pikoaga	Taula	Olabi	Arrazpine	Oiarbide
Elione	Bidegurutzeta	Guardi	Ermaña	Buenabentura
Languurreta	Beitzaga	Langagorrieta (Larrarte)	Bakene	Olaberrieta
Argindegi zahar	Artizu	Iriarte	Oiarbide	Santiago Enea (Etxeberria)
Larrarte	Lizeaga	Gartziategi	Errekalde (Zapiain)	Petritegi
Artola	Ipintza (Rezola)	Sarasola-Oiarbide	Bere Aran (Bereziartua)	

Baserrietako biztanleak sexuaren arabera	0-18 urte	18-64 urte	+65 urte
Gizonezkoak	% 7,92 (5)	% 61,53 (40)	% 30,77 (20)
Emakumeak	% 9,33 (7)	% 56 (42)	% 34,67 (26)
Guztira	% 8,57 (12)	% 58,57 (82)	% 32,86 (46)

Nabarmentzeko oso datu positiboa da 42 baserrietatik 11tan etxekoentzako lanpostuak sortzeaz gain kanpoko 26 langilerentzako lanpostuak ere sortu dituztela. Gehienak sagardotegietan (7) eta barazki ekoizpenetan (4) izan dira. Beraz, lanpostu sortzaile ere badira gure baserritarrak.

Gainera, baserritarren % 55ek (23 baserri) baserrietako lanetatik bakar-bakarrik bizi direla diote, % 19k (8 baserri) 2. mailako jarduera dutela eta % 26k (11 baserri) autokontsumorako jarduera dutela.

Aztertutako beste puntu garrantzitsu batzuk izan dira gure herriko baserritarrek zer nolako produktu motak ekoizten dituzten eta nolakoak diren beraien produktuak saltzeko bideak. Horrek lotura estua du beraien diru-sarrerara mailarekin eta, batez ere, salmenta bide orokor eta bitartekariekiko menpekotasunarekin.

Orokorrean esan daiteke, Astigarragako baserritarren produktuak kalitate handikoak direla, garaian garaikoak eta, gainera, beraien salmenta bideak nolabaiteko "kontrolpean" dituztela. Salmenta zuzena indartsu dago baserritarren artean, bai azken bezeroaren kasuan, bai harakinaren edo denda-supermerkatuaren kasuan, eta hau oso datu interesgarria da, banaketa orokorrarekiko menpekotasuna uste baino txikiagoa dela uzten baitu agerian.

Kalitate handiko produktuak sortzen dituztela esaterakoan, kalitate organoleptikoarekin lotutako kalitateaz gain, balio erantsia duten produktuaz ari gara, hau da, sagardoaz, lo-

reez, labela duten barazki eta haragiez, ekoizpen ekologikoaz eta ekoizpen lokaleko garaian garaiko produktuaz. Ekoizleen ia % 33k labela duten edo ekologikoak diren produktuak ekoizten dituzte.

Datu atsegin modura, aztertutako baserri guztietatik bat bakarra da betidanik burutu izan duten jarduera jarraitzeko asmorik ez duena, hau da, ia % 98k jarraitzeko asmoa argi eta garbi agertu dute. Beraz, gertuko etorkizuna bermatua daukagu, nahiz eta kezka epe luzeago batera dagoen.

Azkenik, baserrien egoera arkitektoniko egoiki edo desegokia aztertzerakoan, beste datu interesgarri batzuekin aurkitu gara. Alde bate-tik, balio arkitektoniko bereziko baserriak eta, bestetik, tolare baserria edo beste edonolako balio bereziko baserriak. Horrek etorkizunean azterketa sakonagoa eta nolabaiteko katalogia egiteko aukera aztertzeko eskatzen du. Hauek dira baserri hauek:

Baserriaren ezaugarri bereziaren izaera	Baserria
Tolare baserria	Latxa Telleri Goia Gartziategi Larrabi
Balio arkitektoniko berezia	Lizeaga Argindegi Zahar Beitza, Iriarte Petritegi
Bestelakoak	Mendiola Iriarte

Txostenaren datuak jaso, prozesatu eta ondo-
rio eta proposamenak egiterakoan, baserria-
rren inguruko udal lantaldearen baitan aur-
keztu eta eztabaidatu egin ziren,

Ateratako ondorio eta proposamen nagusie-
nak hauek izan ziren:

1- Baserritarren egunerokotasuna ero- soagoa izatea (beste astigarragatarrena bezalaxe!) eta behar hurbilak betetzen laguntzea:

Horretarako bide eta bazterrak garbitu eta
mantentzea, saneamendu eta edate ur zer-
bitzua egokitzea, zabor bilketa gerturatzea,
baserriak berritzeko laguntzak eta tasa erraz-
teko aukera baliatzea, argitasuna mantentzea
eta adinekoei asistentzia egokitzea.

2-Baserritarrak kaletarrengana hurbil- tzea eta baserrien balioak identifikatu eta zabaltzea.

Hau garatzeko baserritarren lana eta egune-
rokotasuna hurbilarazteko ekimenak bultza-
tzea: baserritarren eta ikastola nahiz zaharren
egoitzako hartu-emanak eta topaketak anto-
latuz. Baserrien eta beren jardueren seinaleti-
ka garatzea, kokapena eta izena adieraziz.

Hau lortzeko ezinbestekoa da ezagutaraztea,
baserrien balio arkitektoniko, kultural, linguis-
tikoa eta baserrien inbentario, katalogazioa
egitea, baserrien errolda zehatza eginez eta
berauek ezagutzeko ibilbideak antolatu eta
seinaleztatuz.

3-Baserrietako ekoizpenei balioa ema- teko eta salmenta zuzena ahalbidetzeko ekimenak antolatzeko aukerak aztertzea.

Herri merkatua antolatzeko aukera aztertze-
ko proposamena, sagardotegien eta sagar-
do etxearen dinamika eta inertzia positiboak,
turismo eta aisialdi aukerak bultzatzeko bal-
dintzak bertoko produktuen ezagutza eta sal-
menta bultzatzeko aprobetxatzea.

Gauza bera herriko komertzio, denda eta ta-
berna, jatetxe eta sagardotegietan, herrian
bertan ekoiztutako produktuak bereizi eta
kanpainak sustatuz eta elkarrekiko sinergiak
landuz, adibidez, ostegunetako pintxo potean
herriko produktuak eskainiz edo bertoko pro-
duktuak identifikatu eta etiketatze kanpainak
bultzatuz.

4. Udal eta erakundeek aldetik eskaini- zen diren laguntzak eta bitartekaritza sendotzeko neurriak bultzatzea.

Udala, Eusko Jurlaritzak, Foru Aldundia eta
antzeko erakundeek eta baserritarren arteko
lotailua izateko neurriak edo laguntzak azter-
tzea eta, batez ere, gazteak baserrietara ger-
turatzeko neurriak erraztuz.

5. Baserritarren formakuntza eta ekoiz- penak egokitzearen aldeko ekimenak antolatzea.

Udalak nekazal eta abeltzain trebakuntza eta
formakuntzaren arloko erakundeek arteko
zubi-lanak bultzatzea, adibidez, Fraisoro Es-
kola, Hazi Fundazioa eta abar bezalako era-
kundeekin hartu-emanak bultzatuz, sektorea-
ren dinamismoa bultzatuz.

6. Baserritarren elkarkidetza, kooperati- bismoa eta konpromisoa sendotzea

Esan bezala, ondorioak aztertu eta zerrenda-
tutako 6 proposamen familia hauek, ahal zen
heinean aztertu, eztabaidatu eta aurrera ater-
ratzeko konpromisoa adostu zen baserriaren
mahai edo lantaldearen eta udalaren artean,
pasa den 2014ko urriaren 29an, Astigarraga-
ko udaletxean. Horretarako, bilera egutegi bat
egiteko beharra argi geratu zen, hartu beha-
rreko erabakiei jarraipena emateko.

Erronkari jarraipena ematea oso garrantzitsua
litzateke.

//Gaizka Irigoien Goikoetxea

Eneko Egimendiari elkarrizketa

Duela urtebete ez zen ezaguna. Gaur oso ezaguna da. Gutarra.

Osteguna da. Urduri gaude. Bostetan geratu gara Enekorekin, bere aitaren dendan, elkarrizketa egiteko. Simak du izena dendak eta sagardoa eta ardoa egiteko makina eta tresnak saltzen dituzte.

Auto gorri txiki batean iritsi da Eneko. Aitari kasu egin dio. Txakur bat dute, "Darko", gaur erdi gaxorik dago. Elkar agurtu eta kafe bat hartzera gonbidatu dugu, lasai-lasai berriketan egin eta elkarrizketa egiteko. Baina, urduri gaude oso.

Ekainaren 10ean egin diogu elkarrizketa. Hirugarren edizioa amaitzeko egun gutxi falta dira eta bozketak martxan daude.

Kafesnea eskatu du Enekok; guk, kazetariok ura eta muztioa. Grabagailua piztu dugu eta...

Nola duzu izena eta non bizi zara?

Eneko Egimendia Sierra naiz eta Donostian bizi naiz, Grosen, amarekin.

Zenbat urte dituzu?

21 urte ditut

Etxean euskaraz egiten duzu?

Gurasoek ez dakite euskaraz eta arrebarekin gaztelaniaz egiteko ohitura dut.

Zer harreman duzu Astigarragarekin?

Aitak denda du eta txikitatik asko etorri izan naiz Astigarragara. Joan den udan aitaren dendan hasi nintzen lanean eta asko etortzen naiz.

Beste lanik egiten duzu?

Donostiako Mary Ward ikastetxean kiroleko begiralea naiz. Hiru talde ditut, LH1ekoa eta LH5ekoa eta LH6koa. Entrenamenduak, partidak... oso gustura nago. Gero, une honetan Gu ta Gutarrak programan nabil. Hor ere denbora asko pasatzen dut.



Futbola gustatzen zaizu? Non jokatzen duzu?

Bai, asko gustatzen zait. Lau urte Errealean egin nituen, 12 urtetik 16ra. Gero Eibarren. Orain Trintxerpen nabil. Gustura ibiltzen naiz.

Zer intentziorekin sartu zinen Gu ta Gutarrak programan?

Ondo pasatzeko asmoarekin eman nuen izena eta oso ondo pasatzen dugu. Jendea ezagutu, gauza pila bat egiten dugu (yoga, puenting, lekuak ezagutu...).

Zer moduz puenting egiten?

Alturak bertigo pixka bat ematen dit eta gaizki pasa nuen. Ez nuen egin nahi. 61 metroko altuera zegoen. Gainera, gauza bitxia gertatu zitzaidan. Kaskoak kamera bat zuen, saltoa grabatzeko. Dena prestatu zuten eta ez nuela salto egingo... Baina, gutarburu nintzen eta taldeagatik, azkenean, salto egitea erabaki nuen. Salto egin eta... kamerak ez zuen ezer garbatu. Eta bigarren aldiz salto egin behar izan nuen.



Programan egiten dituzuen probetan zer ematen dizu lotsa gehien?

Nahikoa lotsagabea naiz eta kameren aurrean ongi moldatzen naiz. Baina, batzuetan, jartzen badigute, adibidez, proba bat kalean jendea bilatu eta ligatzeko itxura egiteko, ba lotsa ematen dizu. Horrelakoetan, proba egin eta gero kaleko pertsona horiei azaltzen diegu proba bat dela eta barkatzeko eta ondo.

Zein da zuretzat gutarrik jatorrena?

Denak dira jatorrak, baina niretzat jatorrenak Txurru, Imanol, Leku eta Beitia. Lekurekin oso-oso ondo moldatzen naiz eta programaz kanpo ere askotan egoten gara elkarrekin.

Nork irabaztea espero duzu hirugarren edizioa?

Ez dakit. Beno, nik irabaztea gustatuko litzaidake, je, je. Baina zaila izango da. Partaide askok jarraitzaile asko dituzte eta oso jatorrak dira. Gainera, hirugarren edizioan aurreko edizioetako jatorrenak gaude. Beraz, zaila. Talde jatorrenean 6 sartuko dira eta jatorretan jatorrena bat izango da. Espero dut talde jatorrenean behintzat sarzea.

Eta hirugarren edizioa amaitu ondoren zer?

Ez dakit. Beno, hurrengo edizioa prestatzen ari dira eta laster esango dute nola izango den. Udan ere gutarrok zerbait egingo dugu (ezin dizuet kontatu, oraindik sekretua da eta; grabagailua itzalitakoan kontatuko dizuet zerbait).

Tarte polita pasa dugu Enekorekin. Urduri geunden, baina berehala lasaitu gara eta grabagailua itzali ondoren berrikeria jarraitu dugu. Ez daki gu hirugarren edizioa irabaziko duen ala ez, baina guretzat Eneko da jatorrena.

Eta amaitzeko, denok elkarrekin esan dugu:

“Gora gu ta gutarrrak!”

Eneko, motzean, aukeratu bietako bat (azpimarratua dago aukeratutakoa):

Beitia / Leku
 Gorria / Urdina
Erreala / Eibar
Makarroiak / Arroza
 Astigarraga / Donostia
 Mendia / Itsasoa
 Nakor / Amaia
Talde Arroxa / Talde Urdina
Orio / Morga
 Zu Bai Jatorra / Play Lista



//KAZETARIK: EÑAUT LIZEAGA, MAIALEN MUJKA, ANER URDANGARIN ETA NAGORE URKIOLA

MATAZAK: MADEJAS CONTRA LA VIOLENCIA



La asociación Harituz surge de una experiencia de aprendizaje. Es a través de la participación en la Escuela de la Experiencia -desde enero de 2012- que un grupo de mujeres se organiza y comienza a tejer un espacio colectivo. Es así como en marzo de 2013 se consolidan como asociación y comienzan a dinamizar acciones en el marco de la igualdad entre mujeres y hombres. La acción de tejer se convierte en un símbolo del trabajo que realizan sus socias y se traslada hoy a este proyecto de sensibilización contra la violencia sexista. El objetivo de la misma es crear espacios de diálogo entre la ciudadanía sobre la violencia sexista en todas sus manifestaciones y alcance.

Al hablar de violencia contra las mujeres, se trata de detectar los cimientos que aún sostienen al patriarcado, constitutivos de desigualdad y de la dificultad que las mujeres encuentran para reconocerse subordinadas a esta realidad. Esta violencia no es una lacra social a erradicar, sino que se encuentra en el funcionamiento mismo de la sociedad. El trabajo de esta campaña se orienta a abrir, mantener y profundizar un debate y una implicación de todas las instituciones y agentes sociales de Astigarraga, con el fin de poder visibilizar la situación de desigualdad y discriminación que sufren las mujeres y que son la raíz misma de la violencia.

El proyecto en su recorrido surge como una iniciativa desde el Departamento de Igualdad del Ayuntamiento de Astigarraga, en colaboración con la Asociación HARITUZ y la organización Haurralde Fundazioa. La Asociación local de Ha-

rituz "haciendo lana", y Haurralde Fundazioa han compartido sus experiencias de trabajo.

El resultado de este trabajo ha impulsado este proyecto con la premisa de que es posible transformar esas experiencias y potencialidades en una iniciativa simbólica y solidaria que sea inclusiva y participativa con otras mujeres, autóctonas, inmigrantes, diversas, plurales. Ambas entidades se proponen aunar conocimientos en una acción de sensibilización social contra la violencia sexista, entendiendo, que es un deber y una obligación para los Estados y sus ciudadanas y ciudadanos tal como lo establece la CEDAW. (Convención sobre la eliminación de TODAS las formas de discriminación contra la mujer) en su Recomendación General nº 19 y el convenio de Estambul donde se da prioridad a las organizaciones para eliminar todo tipo de violencia contra las mujeres. En su propuesta, la campaña ha pretendido involucrar a toda la ciudadanía de Astigarraga y a sus instituciones y agentes sociales. La participación es un eje fundamental de esta iniciativa. El proyecto se encuentra en las redes sociales y a través de su facebook ha recogido adhesiones de asociaciones de diversos países.

Esta campaña se ha propuesto crear una gran bufanda, una pieza artística de muchos kilómetros, que visibilice y promueva la prevención de la violencia sexista. Varias empresas privadas han colaborado donando lana para la confección de los trozos que formarán la bufanda. Además otros trozos han sido aportados por personas anónimas, organizaciones, grupos de mujeres tejedoras, jó-



venes, y toda persona sensibilizada con la temática de todo el mundo y comenzaron a llegar a Astigarraga a lo largo del mes de junio, continuando imparable hasta el mes de noviembre.

También se puso en marcha un concurso de carteles, Tu pones el Punto, cuyo objetivo es "sensibilizar en prevención de Violencia de género reflejando la sororidad entre mujeres a través de los lazos que se puedan establecer representado en la realización de una enorme bufanda tejida por la ciudadanía de Astigarraga".

El sábado 22 de noviembre de 2014 en un acto conjunto entre instituciones municipales, las asociaciones de mujeres y particulares, permitió unir los trozos de la bufanda, formando un enorme lazo de reclamo para la prevención y erradicación de la violencia que se colgó en la fachada del ayuntamiento de Astigarraga.

El proyecto tomó unas dimensiones inesperadas. La iniciativa se expandió por medio de las redes sociales y la realidad fue muy distinta cuando empezaron a llegar al municipio trozos de bufanda elaborados en países como Inglaterra, México, Túnez, Portugal, Italia, Suecia, Austria, Argentina, Rumania, Polonia... además de todas las comuni-

dades autónomas españolas. Especial mención para Córdoba desde donde se llegó a medio kilómetro. Se desplegó una bufanda tejida a mano de más de 1.200 metros de longitud en la fachada del ayuntamiento y su plaza.

Todas las asociaciones de Astigarraga participaron en ese día de reivindicación, fue un día muy emotivo. Llegaron desde Asturias las comadres de la cuenca minera del Nalón, con su trozo de bufanda. Esas mujeres conocidas como las mujeres del "Tren de la Libertad" que organizaron la manifestación de Madrid en contra del anteproyecto de ley sobre el aborto.

Harituz pasó el testigo del proyecto Madejas contra la violencia sexista a estas mujeres y la bufanda viajó a Asturias para el 8 de Marzo 2015. Estuvo expuesta en 5 ayuntamientos de la cuenca del Nalón y las mujeres de Harituz viajaron hasta allí para acompañar a las comadres en ese día.

El proyecto de Madejas va a seguir su camino. En Noviembre la bufanda estará en Córdoba y se hará todo lo posible para que vaya a Coimbra (Portugal) a la Marcha Mundial de Las Mujeres.

//ISABEL OTERO





//Aritz Galiana

Florentino Goikoetxea eta Comète Sarea

Aurtengo maiatzean 70 urte bete ziren Bigarren Mundu Gerra (1939-1945) amaitu eta Hirugarren Reicha errenditu zela. Gertaera historiko honen oihartzuna handia izaten ari da Europa osoan. Izen ospetsuen ondoan anonimatoan eta isileko lana egin zuten pertsonaiak ditugu eta horien artean Florentino Goikoetxearen gidaritzapean hernaniar talde bat nabarmendu zen.

Arantxa Arzamendi

XIX. mende amaierako Hernanira salto egin behar dugu, gure protagonista 1898ko martxoaren 14an Osinaga auzoko Altzueta baserrian jaioa dugu. Baserriko lanetan ibiliko zen ez dakigu, baina mendian ehizan eta Urumean izokinak harrapatzen ibiltzen omen zen. Hala kontatzen du Florentinoren ondorengo batek, Joxan Goikoetxea soinujoleak¹. Hemezortzi urte zituenean, aita gabarra bat erosi omen zion Urumea ibaitik hondarra ateratzen ibil zedin. Baserritik Loiolara bizikletaz joaten omen zen, Loiolan gabarra hartu eta Urumean zehar Santa Katalina eta Kursaal zubien inguruan hondarra uretatik palarekin gabarrara aterako zuen. Ondoren Astigarrara etorri eta Portutxo, Gartziategi aldean ibiltzen omen zen hondarra deskargatzen.

1936an, Espainiako gerra zibila hasi zenean, Florentinok 38 urte zituen eta euskaldun askok bezala Frantziara ihes egin zuen. Ziburun kokatu zen eta bertan Kattalin Agirre ezagutuko zuen, berarekin batera Comète sarean parte hartuko zuen laguna.



Zer izan zen Comète sarea?

Bigarren Mundu Gerra garaian, alemanen okupazioaren urteetan, Florentino mugalari ibili zen, Comète sarean². Sare hori abiadore aliatuei laguntzeko sortu zen. Alemanian edo Belgikan eroritako abiadoreak onik ateratzen baziren, Comètekoek naziengandik urrundu eta euskal kostaldera ekartzen zituzten, Donibane Lohitzune eta Ziburura. Florentinok muga zeharkatzen laguntzen zien, Bidasoa aldetik eta Donostiara bideratzen zituen, ondoren Bilbotik zehar Londresera itzul zitezten. Lekukoek diotenez, leiala eta oso arduratsua zen bere lanean.

Historialari eta adituek ihesaldi hauen arriskuak kontatzen dituzte, Donibane Lohitzunetik atera eta oinez Bidasoa ibairaino joaten ziren, Endarlaza aldean Bidasoa zeharkatzen zuten eta Erreteriaraino jarraitzen zuten. Handik Donostiara iristen ziren Bernardo Aramaka edo Federico Armendarizen etxera, eta bietako batek Bilbora laguntzen zien. Dena ondo ateratzen bazen, Bilboko kontsulatuan paperak egin eta Gibraltarretik barrena Londresera itzultzen ziren.

Florentinok 227 pilotu pasa zituen, gehienak ingelesak, ba omen ziren kanadarrak eta amerikanoak ere. Inoiz ez omen zuen hutsik egin. Pilotuei apretak ematen zizkien ibiltzeko eta koñak tragoxkak bidea jarraitzeko. Iristeko zenbat denbora faltatzen zen galdetzen ziotenean beti esaten zien berrehun metro falta zirela. Iparraldera itzultzen zenean, gutunak eta enkarguak eramaten zituen, baina behin mendiko patruila batek tirokatu zuen eta zauritua izan zen. Baionako ospitale batera eraman zuten zauriak sendatzera, eta han zegoela ihes egitea lortu zuen.

¹ Bernardo Atxaga: Florentino Goikoetxearen objektuak. Erlea aldizkaria 8. zk. (otsaila, 2015). - 39-51 orrialdeak

² Juan Carlos Jiménez de Aberásturi: Los vascos en la Segunda Guerra Mundial: la red Comète en el País Vasco, Txertoa, 1996

Florentinorekin batera bi emakume ibili ziren Comète sarean. Bata, sortzailea, belgikarra zen, Andrée de Jongh izenekoa eta izengoitiz Dédée, eta bigarrena, berriz, Kattalin Agirre, Florentinoren lagun handia.



"Florentino Goikoetxea 1977" irudia, Miarrizten Ohorezko Legioa domina jaso zuen egunekoa da.

gauza handia zelako".³ Ziburuko hilerrian lurperatu zuten, itsasoari begira.

2006an, Joxan Goikoetxeak bultzatuta, Hernaniko Udalak omenaldi bat egin zion eta gerran ibilitako pilotu ugari azaldu ziren. Udalak monumentu bat inauguratu zuen eta Juan Carlos Jiménez de Aberásturiren *Askatasunaren bidea: Florentino Goikoetxea eta beste hernaniar batzuk nazismoaren aurkako borrokan bigarren Mundu Gerran* liburua argitaratu zen.

Liburuan Florentinoren ibilbideak kontatzen dira eta baita ere berarekin batera mugalari izan zirenen izenak. Hernaniarren artean ditugu, Tomas Anabitarte Zapi-rain, Otsuene-Aundia baserrian 1912ko ekainaren 8an jaio zen bera, eta Frantziara gerra zibilean ihes egin zuena. 29 urte zituen Comète sarean laguntzen hasi zenean eta 1944ko ekainaren 8an hil zen Ziburun.

Anabitarteren baserriaren ondokoa, Otsu-Enea baserrikoa zen Martin Errazkin Iraola, hau ere mugalaria.

Juan Manuel Larburu Odriozola, Jon Zabaleta marrazkilariaren familiakoa, Hernaniko Berakorte baserriko seme zaharrena zen eta 1912ko abuztuaren 20an jaio zen. Frantzia Usandizaga, berriz, bere emaztearekin, Bidegain baserria, Comète sarearen gordelekua izandakoaren jabeak ziren. Alemaniara deportatu zuten Erresistentziarekin kolaboratzeagatik, eta han desagertu zen.

Oiartzungo Altzibar auzoan garaiartarrak bizi ziren, Hernaniko jatorriko familia, eta beti zeuden prest muga zeharkatzen zuten pilotuei laguntza emateko. Donostian Federico Armendariz Ugalde eta Bernardo Aracama (Hernani, 1897) bizi ziren, ba-koitzak kotxe tailer bat zuen eta iheslarietara Bilbora laguntzen zieten.

Sare honetan partaide gehiago izango ziren, asko eta asko ezezagunak ditugu. Aurtengo udaberrian Donostiako San Telmo Museoan eta Aieteko Kultur Etxean Comète sareari buruzko bi erakusketa egin dira eta seguru gaude erakusketa horietara hurbildu direnen artean izen berriak azalduko zirela. Gure asmoa Comète sarea eta Florentino Goikoetxearen ibilbideen aurkezpen bat egitea izan da. Hemendik aurrera gaia sakondu nahi duenari, aipatu-tako Jiménez de Aberásturiren liburua eta Bernardo Atxagaren artikulua gomendatuko nizkieke.

Urtero Comète sarearen ohorezko elkarteak, *Les amis du Réseau Comète*, iraileko aste bukaera batean ibilaldi bat antolatu ohi du, Ziburutik Errenteriara, iheslarietara egin zuten bidea gogoratuz. Aurtengoa irailaren 11tik 13ra izan-go da. Argibideak elkartearen webgunean daude <<http://cometepaysbasque.blogspot.com.es/>> ●

³ Juan Carlos Jiménez de Aberásturi: *Askatasunaren bidea: Florentino Goikoetxea eta beste hernaniar batzuk nazismoaren aurkako borrokan bigarren Mundu Gerran*. Hernaniko Udal, 2006



HERRI BIZITZAZ 2015

OLATU TALKA

ekintzen barruan, Markesaren alaba eta Luixen istorioa antzerki musikalaren emanaldia izan zen, eta antzerkia, musika eta dantza uztartu zituen sagardo etxeko sagastian.



KORRIKA 19

euskararen aldeko lasterketan, herritar askok bezala, euskaltegiko ikasle eta irakasleek eraman zuten lekukoa, gure hizkuntzari beste behin bultzada eta babesa emanez.



ILARRA JARDUNALDIAK

bertan antolatutako ekintzen artean, tabernak aurkeztutako pintxo lehiaketa, baratzei bisita gidatua, ilar dastatzea, azoka berezia plazan eta haurrentzako baserriko jolasak.



NEPALEKO ARGAZKIAK

Kultur etxean antolatzen den argazki eskolako partaideak Nepalen izan dira lurrikara izan aurretik. Bertan ateratako argazkiak jarri dituzte salgai eta dirua hara bidaliko dute.



OIER GURUTZEALDE ARKA

Euskal Herriko txapelduna banakako trinketea eta Espainiako txapeldunorde Urnietako Loitegirekin binakakoan, bikote nafarraren aurka Irunean jokaturako partiduan. Munduko txapelketan hartu zuen parte Mexikon irailean. Aurrez bertako klimara moldatu behar izan zuten, hezetasun handia eta altueragatik eta txapelketa oso ondo joan zen. Espero bezala, mexikarrak eta iparraldekoak lehen postutan gelditu ziren eta selekziokoak (gipuzkoarrak, nafarrak, katalanak, kanariarrak, andaluzak, errioxarrak...) hirugarren, brontzezko domina irabazita.



GURE BASERRIAK

ezagutzeko aukera izan dugu kultur etxean izandako erakusketan. Sagardunen eskutik Lourdes Odriozolak erakutsi digu baserrien historia eta eboluzioa eta baserri guztien argazki berria atera da, duela ia berrogei urte Astigar taldeak ateratakoekin alderatuz, mantentzen direnak, desagertuak, berriak...



ASTIGARTARRAK ERREALEAN

lau herritar dauzkagu jada Errealeko organigraman. Alberto Iturralde ikuskatzaile eta teknikari laguntzaile, Jon Aleman atezain prestatzaile, Iñigo Mutio prestatzaile fisikoa eta orain berri, Igor San Miguel nesken taldeko entrenatzailea. Aurrera txuri urdinak!



Jon Aleman



Iñigo Mutio



Igor San Miguel



Alberto Iturralde

GURE ESKU DAGO

herri ekimenak antolatuta, oihal zatiak apaindu eta josi ziren Euskal Herriaren etorkizuna ehuntzeko bideari hasiera emanez. Herri bat garela, erabakitzeko eskubidea dugula eta herritarren garaia dela adieraziko da Astigarragako oihal zati erraldoian.



Sagardoaren kultura sustatzeko elkarlanean

4 urtetako prozesuaren ostean,
sagardoaren kulturarekin
harreman estua duten Hernani eta Usurbilgo
herriek Sagardun Partzuergoarekin lanki-
detza hitzarmena sinatu dute sagardoaren
kultura sustatzeko helburuz.



Hiru herrietako alkateak

Hernani, Usurbil eta Astigarragaren arteko elkarlan
hau 3 urtetan gauzatuko da eta honako puntutan oina-
rituko da:

- * Hernani eta Usurbilgo sagardoaren kulturako eskaintza **Sagardoaren Lurraldea markapean** integratu, sustatu eta komertzializatzea.
- * Hernani eta Usurbilgo **Sagardo Bideak** sortzea.
- * Hernanik eta Usurbilek **Sagardoetxean** parte-hartzea.
- * Hiru udalen artean **ekitaldi** berriak sortzea.
- * Inguruko **herrien parte hartzea** sustatzea.

“Sagardoaren Lurraldea ezagutuz” ibilaldia

Sagardoaren Lurraldea, Astigarraga, Hernani eta Usurbilgo Udalek antolatuta eta Mendiriz Mendi eta Andatza Mendi Taldea-ren laguntzarekin, “Sagardoaren Lurraldea ezagutuz” ibilaldia ospatu zen apirilaren 26an Astigarraga, Hernani eta Usurbilgo herrietan barrena.

Ibilaldi hau hiru udalen artean martxan jarritako elkarlanaren lehendabiziko ekimena izan da eta



Argazkien iturria: Sagardoaren Lurraldea

ibilaldi hau urtero ospatuko da apirileko azken asteburuan.

30 bat lagunez osatutako taldeak **Sagardoetxean** hasi zuen ibilaldia eta Lourdes Odriozola Sagardoetxeako historialariak, udaletxearen, Markesaren Jauregiaren eta Ergobiko zubiaren inguruko azalpenak eman zituen herrian egindako geldialdietan. Urumea bailara zeharkatuz, **Hernanira** iritsi eta Jexux Mari Gomez Hernaniko Udaleko Artxiboko arduradunak hirigune historikoko datu aipagarrienak azaldu zituen. Ondoren, Santa Barbaratik igo eta Lasarte eta Zubieta zeharkatuz, **Usurbilera** iritsi zen taldea.

Usurbilen “**Sagardogintza gure baserrietan**” erakusketa ikusgai izan zen goiz osoan zehar Potxoenea Kultur Etxean eta Lourdes Odriozola historialariak erakusketaren bisita gidatua egin zuen sagardogintzak historian zehar izan duen bilakaera eta sagardoaren munduak euskal baserriarekin izan duen erlazioa azaltzeko. Horretarako, iaz Sagardoetxean ikusgai egon zen aldi baterako erakusketari Hernani eta Usurbilgo baserrien azalpen panelak gehitu zitzaizkion. Ibilaldiari amaiera eman eta indarrak berritzeko, **bazkaria** egin zen Usurbilgo **Aialde Berri sagardotegian**, bertan giro apartaz gozatzeko aukera izan zelarik.

Hemendik aurrera hitzarmenean adosturiko elkarlanerako proiektuekin lanean jarraituko dugu gure sagardoaren kultura sustatzeko.

Sagardoaren Lurraldea
www.sagardoarenlurraldea.com



Astigarragako Udala

OLATU MOREA

Munduko bihotz eta eskuak josiz

Egin dugu bufanda luzea

Emakumearen aurkako indarkeria saihestea gure xedea

Gizonezkoak bezala emakumeak aske gara

Horregatik gaztelekutik oihukatzen dugu

Marrazo matxistak fuera

Denok batera 1,2,3,4

Egin dezagun olatu morea

Astigarragan igo da elkartasunezko marea

Olatu morea

Denok batera 1,2,3,4

Egin dezagun olatu morea

Astigarragan igo da

Elkartasunezko marea

Olatu morea.

